

ARGIA



BIZKARSORO PELIKULA

Euskararen zapalkuntza eta bizigogoaren historia

42-47. orrialdeak

2839 | 2023 / 09 / 24 | 4,00 €

02839
9 778402 139093




**Kiroleko
indarkeriari aurre
egiteko legea**

24 | GIZARTEA



**"Leioako bosten"
aurkako auzia**

34 | IKASLE MUGIMENDUA



LARRUN #288
**Afrika: egungo gatazken
sustrai kolonialak**

HAZOKA

Hernaniko III. Liburu eta Disko Azoka

IRAILAK 30, LARUNBATA 11:00-14:30 / 17:00-19:30

 ATSEGINDEGI



LIBURUEN AURKEZPENAK



Laguntzaileak:




DOINUELE
Euzkarako plazan sarea

30 DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

Info gehiago:

 www.dobera.eus

 dobera@dobera.eus

 943 33 27 99

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOAK
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 19 | KARMELO LANDA
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | NEKANE TXAPARTEGI
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | AHOZTAR ZELAIETA

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | BIZI BARATZEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
ITXASO PAYA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


24 | **KIROLEAN ERE ADIN TXIKIKOEN AURKAKO INDARKERIARI PLANTO**

Izan daiteke kideak egindako burla, entrenatzaileak lesionatuta jokatzera behartu izana, gurasoek sartutako presioa, klubeko zuzendaritzak material kaxkarragoa ematea... Hamaika motako indarkeria jasaten dute kirola egiten duten adin txikiko pertsonak. Ondorioz, haien osasuna eta kirola egiten ez jarraitzea dago jokoan. EAEn bada irailaren 1etik aurrera kirol talde denek bete behar duten lege bat...

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Kissinger eta Pinochet: dokumentuak argitara, kulpista guztien lotsarako

Urko Apaolaza

14 | PERTSONAIA | SILVIA GUILLÉN

"42 urte ditut eta 22 lanbidetan aritu naiz"

Reyes Ilintxeta

30 | HEZKUNTZA

"Eskolako patioa aldatzeak ekarri du neskek zentralitatea irabaztea"

Mikel Garcia

34 | POLITIKA

"Militantzia politikoaren zilegitasuna defendatu behar da"

Mikel Eizagirre

42 | KULTURA | BIZKARSORO

Herri baten trauma kontatzeko pelikula

Gorka Peñagarikano

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Peñagarikano, Irati Irazusta,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Lander Arbelaiz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikokoak

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitaratu
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuontzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A photograph of a climate protest. In the foreground, a young man with curly brown hair, wearing a blue and white plaid shirt and a black backpack, looks off to the side with a serious expression. To his right, a young woman with blonde hair is holding a large cardboard sign that reads "SATAN IBERT RIP S" in red and black letters. The background is filled with other protesters and trees, suggesting an outdoor urban setting.

Izen-abizenekin

Klima aldaketaren eta beroketa globalaren aurkako mezuak politikoki zuzenaren barruan sartu dira. Dena da berdea orain. Kutsatzailearen kea eta berari baimenak ematen dizkion agintariaren txapa ere bai. Garapen jasangarriaz mintzo dira Urkullu eta Chivite, hurrengo egunean AHTren hurrengo zuloa eta errotaz josiko duten mendiaren izena iragarri ostean. Erregai fosilak dira arazoaren sorburu nagusiak, baina ez ei da kontraesana Europako findegi handienetako bat, dirulaguntza publikoz, baimen bereziz eta politikari ohiz josia hementxe izatea. Euskal Herriko padurarik ederrenetakoa zenaren gainean eraikitakoa da Euskal Herriko enpresarik kutsatzaileena, petrolio konbentzionala fintzeari uzteko asmorik ez duena: Petronor.

📷 "Deskarbonizazioa orain! Azkarra, zuzena eta behin betikoa" manifestazioa Bilbon irailaren 15ean. **ARITZ LOIOLA / FOKU**

 **AXIER LOPEZ**

NDER
ROLA
OL

Jar dezagun erdigunear
BIZITZA
EKO
GORA BARRA FEMINISTA

EL CLIMA
BAO
Zalea

600 kirolarik sexu erasoak salatu dituzte Frantzian

ERREDAKZIOA

Tenisleriak, patinatzaileak, judolariak, atletak... Duela 20 urtekoak dira lehen salaketak, baina asko egungoak dira (107 salaketa 2020-2021 denboraldikoak dira). Sexu erasoan %70 emakumeek jasan zituzten eta %84a adin txikikoak ziren erasoak pairatu zituztenean. Azken asteotan Frantziako legebiltzarrak komisio bat sortu du gaia aztertzeko eta Angélique Cauchy tenislariaren testigantza gordina entzun da. Azaldu du nola egin zuen Andrew Geddes bere entrenatzaileak pixkanakako prozesua, tenislari gaztea 400 aldiz bortxatuz iritsi arte: behin entrenatzailearen etxean lo egiten geratu zela, entrenatzaileak gurasoei argudiatu zielako ez ziola denborarik ematen kirolari gaztea etxera eramateko, "eta gurasoek ez zuten uste ezer gaizki irtengo zenik". Pixkanaka ohiko bihurtu zen kirolaria entrenatzailearen etxean lotan gertatzea. Hasierako gauak lasaia izan ziren, "bere gela utzi zidan eta berak egongela egiten zuen lo", baina egun batean "ipuin bat kontatzen utziko al nion" galdetu zion 12 urteko gaztetxoari, eta gero eta denbora gehiago ematen zuen lo hartu aurretik neskaren gelan, besarkadak ematen hasi zen, edo bizkarrean masajea emateko eskatzen zion: "Gauza horiek hain gutxinaka egiten joan zen, ze nahiz eta banekien ez zela normala,

eta ez nuen gertatzerik nahi, ez nekien zein momentutan esan gelditzeko. Bakkarrik nengoen, etxetik urrun, eta 12 urterekin ez zara gai heldu bati fisikoki eta psikologikoki aurre egiteko... are gutxiago miresten eta errespetatzen duzun norbait bada, eta batez ere pentsatzen baduzu pertsona horrek lagundu ahal dizula zure ametsak lortzen. 15 egun horiek nire bizitzako okerrenak izan ziren. Egunean hirutan bortxatzen ninduen".

Psikologikoki ere zanpatu zuen entrenatzaileak, hiesa kutsatu ziola sinetsarazi baitzion. Azaldu du bere buruaz beste egitea pentsatu zuela.

KIROLEAN INDARKERIAK DUEN ZIGORGABETASUNA

Tenis munduan entrenatzaile horrek izan duen inpunitatea ere salatu du Cauchy: "Omertá moduko bat zegoen, nahiz denek jakin egiten ari zena susmagarria zela. Nola ez zeuden seguru, beren buruari esan zioten afera ez zegokiela haiei, gurasoei baizik. Baina akatsa da umeak ez babestea". Emakume batek gaia atera zion klubeko lehendakariari, baina erantzun hau jaso zuen: "Bai, baina tituluak ekartzen dizkigu".

Egun, Andrew Geddes 18 urteko kartzela zigorra betetzen ari da, 12 eta 17 urte bitarteko lau tenislari bortxatzea egotzita. ●



Angélique Cauchy tenislaria Frantziako Legebiltzarraren komisioan adierazpenak ematen. Ondoko argazkian (iturria: Le Parisien) 400 aldiz bortxatu zuen Andrew Geddes entrenatzailea.

243 Suizidio Kode aktibatu ditu Nafarroak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Pasa den abenduan, Suizidio Kodea martxan jarri zuen Nafarroako Gobernuak: kode hau psikiatra eta psikologoek aktibatu dezakete, pertsonaren batek pentsamendu suizidak dituela antzemanegero, eta segimendua eta baliabide bereziak ahalbidetzen ditu, hainbat profesionalen elkarlanaren bidez. Abendutik hona, 243 kode aktibatu dituzte eta horietatik 148 desaktibatzea lortu dute.

Urtarriletik uztaileira, 36 lagunek egin dute bere buruaz beste Nafarroan. 2022an, 60 suizidio erregistratu zituzten.

Nafarroako Gobernuaren Suizidioaren webguneak 11.561 bisita izan ditu, 2021ean sortu zenetik. Nahi edota behar duen pertsonak, 024 zenbakira deitu dezake, Esperantzaren Telefonora (948 243 040), Larrialdietara (012) edota Besarkada elkartera (622 207 743).

INFORMAZIO EGOKIA, FUNTSEZKO

Suizidioaz informatzeak lagundu diezaieke pentsamendu suizida dutenei; horretarako, egoki informatzea funtsezkoa da. Osasunaren Informatzaileen Espainiako Elkarteak eskatu du gai honetan kazetariak formatzeko.

Ez da errealitatea sinplifikatu behar: suizidioa fenomeno konplexu eta multifaktoriala da; bere buruaz beste egiten duten pertsonak ez dute zertan buru nahasmen-durik izan, eta ez da arreta deitzeko modu bat; sentsazionalismoa eta espektakulua saihestuz eta erabilitako hizkera zainduz, datuetan oinarritzea inportantea da. Gaia jorratzerakoan, arrisku faktoreak eta alarma piztu beharko liguketen seinaleak zein diren adieraztea mesedegarria da.

Oro har, bere buruaz beste egitea ez da zerbait inpultsiboa (sarri pentsamendua hor dago aurrez, adierazi ez arren), eta horrek esan nahi du prebenitu daitekeela, laguntza profesionalarekin pentsamendu suizidak murriztu eta desagerrarazi daitezkeela. Mezu hori zabaltzea garrantzitsua da, aurrera atera den jendearen testigantzak jasotzea, eta jakina, eskura dauden erreminta instituzional eta osasun arlokoen berri ematea. ●

MATERIALISMO HISTERIKOA

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

Lorategia



UXUE APAOLAZA LARREA

Meloniri ez zaio ondo atera. Zer ezustekoa. Migranteek ez diote iristeari utzi. Agian, ez zegoen dei efekturik; agian, kanporatze efektu bat baino ez dago, beti. Ez da gure lorategia gustatzen zaiela (Borrellek esan zion moduan), da beraiei infernuko sua baino ez diegula utzi. Irudiak, berriro irudiak: Lampedusa inbaditua, azal beltzez, irudietan pilaketek pilaketago baitirudite pilatuak beltzak badira.

Europa mugitzen hasten denean lorategi erritmoan egiten du. Brusela hain larrituta dago, ezen bilera bat egin baitu, telefonoz. Frantziak irmo adierazi du elkartasuna, Italiarekin, eta Van der Leyenek Italiako uhartea bisitatuko du.

Albistegi berean hitz egin dute Mahsa Aminiri buruz, Irannen buruko oihala gaizki eramateagatik atxilotu, eta bizirik atera ez zenari buruz. Heroi bat da, han: hemen terrorista potentzial bat litzateke batzuentzat, beste listo usteagoentzako gure kultura ordezkatzera datorren borondaterik gabeko fitxa bat, nahi gabe patronalaren estrategia neoliberalaren mesedetan ari dena. Sajarov Saria emango omen dio Europak (agian, muga pasa gabe hiltzeagatik, Lampedusan arazorik sortu gabe).

Melonik esan du ez duela Europaren keinua elkartasun keinutzat hartzen, erantzukizun keinutzat baizik, muga hori Italiarena ez ezik, Europarena ere badenez. Eta ultraeskuindarrei ez zaie inoiz arrazoirik eman behar, baina eman egin beharko diogu. Noizean behin gogoratu behar genuke zein muga gotortzen dituzten gure lorategian lasai pasea gaitezen. Gure mugak Tunisian, Marokon, Libian, Turkian... daude. Gure mugek ez dute inor konbentzitzen. Irakurri, ikus, entzun, noizean behin, zer egiten dugun han, eta segi, lorategian paseatzen, basatiak besteak balira bezala. ●



Euskara

Eusko Jaurlaritzak 4,5 milioi euro bideratuko ditu "euskara ikastea errazago egiteko". Aurten lehen aldiz, 16-18 urte bitartekoek C1 komunikagarritasun maila hobetzeko ikastaroa egiteko aukera izango dute, kasik doan.

Lan gatazka

Grebara deitu dituzte sektore publikoko 150.000 langile EAEn. Urriaren 25erako eta abenduaren 19rako egin dute deialdia. Sindikatuek salatu dute sektore publikoak "habarmen" egin duela okerrera, baita bertako langileen baldintzek ere.

Klima

Joan den asteetako txingor ekaitzek kalte material ugari eragin zituzten Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait herritan. Nafarroa hegoaldea ere kolpatu zuen kazkabarrak, eta Fitero, Cintruenigo eta Corella hondamendi eremu izendatzeko eskatu du gobernauk.

Rodrigo Cuevas



ULA IRURETAGOIENA

Musika jarraitzailea bazara, Rodrigo Cuevas ezaguna izango zaizu. Gure lurretan gonbidatua izan da, Bilboko Aste Nagusian, Iruñeko Enmusikadas eta Oreretan bukatu berri den Atlantikaldian, eta Erromeriak bira kantatu eta dantzatu dio bere fan talde zabalari. Rodrigo Cuevasek musika folklorikoaren berrikuspenarekin lurraldetasun ekintza handia burutzen du eskenatokitik eskenatokira eta horregatik ekarri nahi dut hizketaldi honetara.

Lehenik, bere lan musikala hizkuntza txikien aldeko kantu bat da, Asturiaseko hizkuntza darabilelako, erdararekin nahasian egoki ikusten duenean. Eta gura etortzean, “euskara de carretera”-z hitz egin zion publikoari, eta “nork dio euskara zaila dela?” gaineratu zuenean Rodrigok daukan etorri umoretsuan, bertaratutako bion bihotza harrapatu zuen. Lotsagabekeria, atrebentzia eta ausardiarekin folklore asturiarra musikatzen eta performatzen du, moderno bilakatu arte. Tradizioan oinarritutako musikarekin lurralde aldarrikapen argian kokatzen da, eta jota, txotisa, kuplea, fandangoa tekno eguneratuarekin osatzen du ekitaldi musikala, landa lurraekin lotutakoari purpurina erantsiz. Lurraldea du mintzagai eta landa lurraren defentsari kantatzen dio konplexu eta lotura erromantikorik gabe, maitasunetik. Seguru kritika zorrotzak jasoko dituela marika iruditeria eta show-a darabilelako, serioegia den tradizio-identitarioaren eraldaketarako. Ja! Baina kalitatezko maila artistikoarekin publiko gazte eta heldua tradiziozko abesti eraldatuekin dantzan eta abesten jarri ditu.

Inbidiaz begiratu ahal zaio arkitekturatik musika tradizionalarekin Rodrigo Cuevasek egiten duen lan eta arrakastari, folklorea gai bizi bat dela defendatu eta praktikatzen duelako eta ez delako erdibidean gelditzen. Musikarekin irekitasuna duten horiek arkitektura tradizionalaren errebisioarekin jarrera berdina balute, kokapen puristak mugitzeko bidexkan ginatete. ●



Gaztelera ez den beste hizkuntzatan hitz egiteagatik kaleratu izan dituzte diputatuak Espainian.

Lasai, euskara entzungo da-eta

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Irailaren 19tik aurrera, Espainiako Kongresuan euskaraz hitz egin dezakete diputatuak. Legea oraindik ez dago onartuta, baina tematu egin da PSOE, oso lehen bilkuran aplikaturik egon dadin neurria, eta egon egongo da, ez izan zalantzarik. Eta aizue, sinbolikoki bada ere, balioko du amurrioa ultraeskuindar figurak hainbeste gorroto duen euskara entzuteko. Belarriak estaliko ditu ala itzultzailearen laguntza eskatuko du?

Hain justu ere egun berean, Europako Batasuneko Kontseiluak eztabaidatu egingo du euskarari, katalanari eta galizierari izaera ofiziala aitortzeko eskaera. Espainiako Gobernuak, jakina, babesa adierazi dio egitasmoari –zer egitera ailegatzeko den bat, besteen beharra duenean-. Aldiz, Frantziako Gobernuak esan du ezetz, jakina, ezer gutxi axola zaiolako Bordeletik behera gertatzen dena, Miarritzeko uda sasoi eta kasinoaren errentagarritasuna salbu. Dioena da “hizkuntza erregionalak” ofizial bihurtzeak zalantzak eragiten dizkiola; terminologiak deskribatzen dio identitatea. Diskurtso ideologiko horretara batu da Suedia, eta “arriskutsua” hitza gehitu dio, “asko” direlako EBn ofizialak ez diren hizkuntza gutxituak, eta “ondorio juridiko eta finantzario handiak” sor ditzakeela balizko domino efektu batek.

Neurria ez da etorriko euskaldungoaren mundua salbatzera, baina albiste pozgarri gisa saldu zaio gizarteari. Ez da zoritxarrekoa, ez, jakina. Euskaraz entzun ahalko ditugu politikariak, eta Espainiako presidentek euskara entzungo du. Baina eskakizunak ez ditu hizkuntza gutxituetan entzungo. Gauza inportanteak erdaraz egiten dira –baxoako eta brebetako azterketak, esaterako-, baina esan ere, eta ez dago Madrilera joan beharrik. Gasteizko parlamentuan, kexa, aldarri eta iragarpen inportanteak erdaraz esaten dira. Edo elebitan, baina inoiz ez euskaraz soilik; alderdi guztiek egiten dute gauza bera. Lehendakaria ETB1eko albistegietan erdaraz entzuteak izan ohi du sarri zergatia: gaztelera soilik esan duela modu horretan. Azpitoluak ez jartzea, hori beste kontu bat da.

Hainbat diputatu euskaraz mintzatuko dira Madrilan, baina etxera elebitan datorren dokumentu administratiboak irakurri badaezpada erdaraz, bien artean kontraesanik balego, jakina da-eta zein egongo den zuzen. ●

TEKNOLOGIA

Bizitza ona



DIANA FRANCO

Gogoko dut zenbait pertsonak duen pentsatzeko modua, horietako bat da Pepe Mújica, Uruguai-ko presidente ohia. Gauza da Mújica jaunak baduela elkarrizketa bat non adimen artifizialaren inguruan hitz egin duen. Beharbada zenbait pertsonari arraro egingo zaio adimen artifizial bat sortu edota erabili ez duen norbaitek horri buruz bere hausnarketak egitea, baina ez da hain ariketa zaila, adimen artifiziala sortu dutenak gizakiak baitira.

Bada, Mújica jaunak uste du adimen artifizialaren eta beste teknologia batzuen garapenarekin pertsona asko esplotatuak izateko ere ez garela baliagarriak izango eta horrek garamatza lanaren behararen idearen inguruan pentsatzera. Adimen artifizialak arauak aldatzen hasi da. Orain arte, herrien garapenean kapitala garrantzitsua baten, Mújicak dio gaur egun gizartearen adimena dela aldagai erabakigarria. Errealitate honek munduan banaketa berria dakar: alde batetik esplotatuak izateko ere balio ez duten pertsonak, eta bestetik ezagutzaren jabeak.

Aldaketa teknologikoak harremanak aldatzen ari dira, gizarteko nerbio-ehuna eta gorpuzkera, erakusten ari dira gizakion gaitasunak eta gorputzak lan produktiborako ez direla hain beharrezkoak. Gauza da, bizi ditugun gizarteak eta ekonomiek lan produktiboan dutela oinarri nagusia. Gai izango ginateke gizakiok lan produktiboa makinaren esku utzi eta gure artean eta planeta-rekin bizitza on bat ahalbidetuko luketen gizarte eredu berriak sortzeko? Gizarteak eraikitzeke moduak, teknologiak eraikitzeke moduak bezain anitzak dira, eta bide bakarra ez da emango. Nire ustetan bizitza (bere aniztasun guztian) erdian jarriko duten gizarteak izango dira denontzako bizitza ona ahalbidetuko duten teknologiak sortzeko aukera izango duten bakarrak. ●

NAZIOARTEA

Na Vostok?

MIKEL ARAMENDI

Aparteko erakarmenik ez luketen hitzordu batzuk girotzeko erretolika ote da ala benetako jirabuelta geopolitikoaren abiapuntua, munduaren etorkizuna baldintzatu dezaketen horietakoa? Edo beste askotan bezala, bigarrena izan nahi baina lehenengoan geratuko den zerbait?

Kontua da Ekialde Urrunean, Kim Jong-unen bisitaldiaren aitzakian baina ez horregatik bakarrik, segidan daraman egun mordoaren atarian, aldarrikapen potoloa bota zuela V. Putinnek: erabateko lehentasuna da Ekialde Urrunaren garapen ekonomikoa egungo Errusiarentzat. Mezua nahiko oharkabean geratu da. Eta lehendik ere eginak zituen beste batzuen ildoan letorke, azpimarraren intentsitatea beste berritasun handirik gabe.

Asmoa, gainera, ez da oraintxekoa, alafede. Errusiaren espantsio siberiarren benetako helmuga izan dela esan liteke. Baina beste kontinentean *Go West, young man!* harekin paretsuan abiatu bazen ere, *Na Vostok!* horrek Transiberiar Trenbidearen alboetan tarteka sortu eta ekonomia estraktibisten epelean hazi diren hiri batzuk besterik ez dituela erdietsi orain arte, esan liteke. Beraz, Primorski eta Khabarovsk ez dira Kalifornia.

Zergatiak begien bistakoak dira: klimatikoak, demografikoak, ekonomi-

koak, politikoak... eta ez dira nahierara hola eta hola aldatzen direnetakoak.

Baina egia da, halaber, XXI. mendea ez dela XIX.a ez XX.a ere. Munduaren ardatz ekonomikoa aspaldi alde egin zuen Atlantikotik Ozeano Barera; eta Europa ez da jada munduko gorabehera politiko-militarren erabakigunea. Artikoa desizozteak itsas-garraiobi-deak aldaraziko dituela esan beharrik ez dago, bestalde.

Beraz, Errusiak bere grabitate-zentroa Ekialde Urrunera zeharaldatu nahi izateak koherentzia osoa du. Bere garaian Pedro Handiak hiriburua Neva ibaiaren bokalera eraman zuenean bezalatsu. Egungo Errusian hain ugariak diren geoestrategia eta antzekoen artean ere itzal nabaria duen egitasmoa da *Na Vostok!*, "Hoa Ekialdera!", eurasiatismoarekin uztartuta.

Burubero batzuen areto-estrategiak baino egitate faktikoagoak ere badaudela ez da ahaztu behar, ordea. Kimekin batera Putinnek egun hauetan bisitatu duen Vostotxni kosmodromoa da horietako bat. Baikonourreko azpiegitura historikoaren ordezkia izan behar duena, noski, ez da arinki planifikatutako zerbait izango, iraupenagatik, besterik ez bada ere.

Eta hura Txinako mugatik 100 kilometrorra egoteak ere zerbait adierazten du, nik uste. ●



ANTONIO MARIN SEGOVIA (CC BY-NC-ND 2.0)

KISSINGER ETA PINOCHET: DOKUMENTUAK ARGITARA, KOLPISTA GUZTIEN LOTSARAKO

Augusto Pinochet diktadoreak Txilen estatu-kolpea eman zuela mendeko erdia bete denean, hamaika berba entzun dira herrialdeak bizi duen zatiketaz. Hamazazpi urtetako diktaduraren errepresioa ukatzea da zenbait eskuindarren egungo arma, *negazionismo* gisa ulertu den diskurtsoarekin. Baina desklasifikaturiko dokumentu ugari argi erakusten dute AEBek Salvador Allenderen gobernuazapaltzen izandako inplikazioa. Historiak epaituko al ditu?

URKO APAOLAZA AVILA

Txilen Augusto Pinochet jeneralak estatu-kolpea eman zuela berrogeita hamar eta Henry Kissinger politikaria jaino zela ehun urte bete dira aurretik. Historia liburuetan kolaz itsatsita geratuko diren bi izen dira. Lehenak, diktadura ikaragarria ezarri zuen Hego Amerikako herrialde hartan, eta bigarrenak krimen horretan lagunduzion AEBetako Segurtasun Nazionalako Kontseiluan zuen aholkulari kargutik, orain Bakearen Nobelduna omentzen dutenek ondo dakiten moduan.

Richard Nixon presidente zela, Txileko militarren mugimenduen berri bazuela dioten bi dokumentu desklasifikatu ditu AEBetako Gobernuak duela gutxi, 1973ko irailaren 8 eta 11koak,


biak Pinochetek kolpea eman aurrekoak. AEBetako Ordezkarien Ganberako presidente Alexandria Ocasio-Cortezek Txilera egin bisitaren ostean argitaratu ditu Joe Bidenen administrazioak, "Txilerekiko konpromisoa" erakusteko. Ondoren etorri dira 50. urteurreneko ekitaldiak, diktadura justifikatze duten hitzek irrist egiten dieten politikari eskuindarren eta *negazionismoa* salatzen duten herritarren eztabaidaren erdian.

Baina dokumentu horiek ez diote ez genekien ezer. Hamarkadotan milaka dokumentu ezagutarazi izan dira, erakusten dutenak Txilen Salvador Allenderen proiektu sozialista popatiki bidaltzeko Washingtonen egosten ari

zena: "Hainbeste ditugu, honek guztiak izandako bilakaeraren egunez eguneko kontakizun bat bezala irakur daitezkeela". Hala dio Peter Kornbluh-ek, CIAk Txilen egindako esku hartzeaz munduan gehientsuen dakien ikerlari estatubatuarra.

George Washington Unibertsitateko Segurtasun Nazionalako Artxiboan Txileri buruzko dokumentazioa biltzeko proiektuaren zuzendaria da Kornbluh, eta berrogei urte daramatza zeregin horretan. Bulego zuloko sagu lanak egiteaz gain, AEBetako Gobernuaren ere presionatu du dokumentuak askatu ditzan: Clintonen garaian milaka lortu zituen eta Obamarenean beste milaka. Bere obsesioa Allende aldarrikatutako "epaiketa historikoa" eraikitzea izan da, Henry Kissinger eta Richard Nixonen izenak Txileko demokraziaren deuseztapenarekin lotu daitezkeen betiko.

Dibulgatzaile azkarra da Kornbluh eta berarekin egindako elkarrizketak nahieran aurki ditzake Net Hurbileko irakurleak sarean. Youtuben bada hitzaldi bat zintzilikatua, Txileko Uni-





SANTIAGO, 1976 Amerikako Estatuak antolatuta, Henry Kissinger AEBeko Estatu Idazkariak bisita egin zuen Txileko Santiagora eta Augusto Pinochetekin bildu zen. Publikoki giza eskubideen urraketak salatu zituen, baina pribatuan babes osoa eman zion, CIAko dokumentuen argitan.

bertsitateko Komunikazio fakultatean abuztuaren 31n eskainitakoa: “Beti azaldu nahi izan diet zuek bezalako ikasleei CIAko kable bat nola irakurtzen den”, esaten die aurrean dituen entzuleei. Eta hortxe doa *top secret* itxurako tipografia duen mezua lerroz lerro desfrazterazera.

Desklasifikatu aurretik zentsuratzailerik luma lodi batekin borraratzen dituzte jendeak ezagutzea nahi ez dituzten datuak. Batez ere *sources and methods* delakoak dira, hau da, informazioa lortzeko erabilitako iturriak eta metodoak. Horregatik, dokumentuak beltzunez josita ikus ditzakegu, eta hutsune asko dituen puzzle konplexua osatu behar du ikerlariak.

RICHARD HELMS ETA AEB-EN ESKUA

1973ko irailaren 16an, Allende hil eta Santiagoko La Moneda jauregiaren aurrieri oraindik kea zerienean, Nixonek

Hamarkadotan milaka dokumentu ezagutarazi izan dira erakusten dutenak Salvador Allenderen proiektu sozialista popatik bidaltzeko Washingtonen egosten ari zirena

Kissingerri deitu zion telefonoz: “Gure eskua ez da ikusten kasu honetan, ezta?”, galdetzen dio. Eta Kissingerrek erantzun: “Guk ez dugu egin. Esan nahi dut, guk lagundu egin dugu. [Hutsunea] baldintza hoberean sortu zituen”. “Hala da”, amaitzen du presidentek.

AEBek Txileko estatu-kolpean izandako esku hartzea erakusten duen froga baliotsua da desklasifikatutako dokumentuen artean dagoen transkripzio hori, eta Kornbluhek urte askotako esperientzia baliatu du idatzi gabeko hutsunearen atzean zein dagoen jakiteko: Richard Helms, CIAko burua.

Ikerlariaren esanetan, agian ez da zuzena esatea AEB-ek Txileko estatu-kolpea antolatu eta agindu zutenik, baina kolpe baten aldeko “giroa” jarri zuten CIAREN bidez, Kissingerrek Etxe Zuriko maizterrari aitortu bezala. *Pinochet desclasificado* (“Pinchet desklasifikatua”, Editorial Catalonia, 2023) lanean eman ditu bere tesi guztiak Kornbluhek

–aurten berrargitaratu du informazio eskusibo gehiagorekin– eta askoren aburuz Egiaren Batzorde batek eginda koaren pareko izan liteke ikerketa hori.

532 orrialdeko liburutzarra esku-ratzeko aukera ez duenak, Truhdig ingelesezko webgune ezkertiarrean bi zatitan argitaratu duten elkarrizketa luzea irakur dezake: *Kissinger and the CIA in Chile: An Interview With Peter Kornbluh* (“Kissinger eta CIA Txilen: elkarrizketa bat Peter Kornbluhrekin”). Elkarrizketatzailea ez da edonor, Marc Cooper baizik, Allenderen itzultzaile pertsonala eta 1973ko kolpearen ondorioz errepresaliaturikoa. “CIA eta Txileri buruzko elkarrizketa definitibo da hau”, dio Truhdig-eko artikulua- ren aurkezpenean. AEBetako inteligen- tziak herrialde hartan utzitako lorratz eta miseriak kontatzen ditu banaka-ba- naka Kornbluhrek bertan, hastapenetik hasita.

AGUSTÍN EDWARDS ETA ‘EL MERCURIO’

1970eko irailaren 14an, hauteskundeak irabazi eta Allende presidentetzara iris- tear zela, Agustín Edwardsek hegazkina hartuko du Santiagotik Washingtonera, eta han Helmsekin bilduko da. *El Mer- curio* egunkari boteretsuaren jabea da Edwards, baita Pepsico konpainiaren zuzendariordea eta Txileko gizon abe- ratsenetako bat ere. Nafarroan 1936an *Garcilaso*-k egin bezala, honek emanda- ko informazioa giltzarri izango da atzera kontaketa bat hasteko: “Edozein militar

1970ean estatu-kolpea xaxatzeko saiakerak porrot eginda ere, Allenderen agintaldian AEBek jarraituko dute Txilen “klima kolpista” berotzen, herrialdea ekonomikoki ezegonkortu eta kontra-propaganda kanpainak finantzatzen

txiletarrek baino maila altuagoko bile- rak izango ditu, kolpista potentzialak zein diren eta kolpea emateko arazoak non egon daitezkeen kontatzeko”, dio Kornbluhrek.

Eta “arazo” nagusienak izen bat zuen: René Schneider. Txileko Armadako bu- rrua zenak Konstituzioa errespetatuko zuela ziurtatu zuen, gertatzen zena ger- ta. Hitz horiek azkura handia sortu zuten elite ekonomiko eta militarrean, eta CIA segituan hasi zen konspiratzen koman- dantea paretik kentzeko “bandera fal- tsuko” bahiketa batekin. Horretarako,

Patria y Libertad talde ultraeskuinda- rrekin kontaktatu zuten inteligentzia- ko agenteek.

Baina operazioaren egunean, 1970eko urriaren 22an, Schneider bahitu ez baizik hil egin zuten. Jokaldia ez zitzairen ongi irten, inork ez baitzuen sinetsi Allende- zerikusirik zuenik ekintza harekin, eta kolpistak ez ziren mugitu. Hala ere CIAk bere agenteei txaloa jo zien: “Txiletar askorentzat soluzio militarra aukera bat izatera pasa delako”, dio agintziaren kableetako batek. Kornbluhrek gogor hitz egiten du elkarrizketaren une honetan: “Hilketarako konplot batez ari gara, eta Henry Kissinger da haren egile intelektuala”.

Estatu-kolpea xaxatzeko saiakera ho- rrek porrot eginda ere, Allenderen agin- taldian AEBek jarraituko dute “klima kolpista” berotzen, herrialdea ekonomi- koki ezegonkortu eta kontra-propagan- da kanpainak finantzatzen Edwardsen *El Mercurio* erabilita; 1973ko irailaren 11n azken sastakada ematen dioten arte.

ATZO KOLPISTAK, GAUR NEGAZIONISTAK, BIHAR KOLPISTAK

Zer dela eta setakeria hori Txile bezala- ko herrialde txiki eta baketsu batetiko? “Kissinger xake jokalaria hoberena da – diosku ikerlariak– eta ikusten du Txilek nolako inpaktua eduki dezakeen NA- TOko beste herrialdeengan”. Europako potentziak domino fitxak bezala eroriko zirela uste zuen, Gerra Hotzaren teoria beldurgarriak sinetsita: “Erabat erratu zen, baina Txileren etorkizuna bere es- kuetan hartu zuen”.

Hainbeste aipatzen ez den beste arra- zoi bat ere badago Txilen gertatutakoa ulertzeko: 1960ko hamarkadan, Kenne- cott eta Anaconda kobre esportatzaile estatubatuarrek izan ziren lehenak Etxe Zuriko aldaba jotzen, Allende- zekar- kien arriskuarekin larrituta. Izan ere, mediku marxistak agian ez zuen iraultza Kubaren bidetik egin nahi, pragmatikoa- goa zen, baina helburu garbi bat zuen: kobreaken nazionalizazioa. Ez da kasua- litatea Pinocheten kolpearen ondoren Txile izatea neoliberalismoaren Hego Amerikako laborategi nagusietakoa.

1982an Urrezko Palma eta 1983an Oscarra irabazitako Costa-Gavrasen *Missing* (“Desagertua”) pelikulan oso ondo azaltzen da diktadura txiletarra- ren terrorea. Milaka biktima eragin zi- tuen sistema hori babestu zuten AEBek hurrengo urteetan, eta Kissinger izan



OPERACIÓN CHILE

PETER KORNBLOH Duela egun gutxi Txileko Chilevisión telebista katean *Operación Chile: top secret* lau kapitulutako dokumentala estreinatu dute arrakasta handiarekin. Ikerlariak datu berri gehiago eman ditu CIAk Pinocheten diktaduran izandako parte hartzeaz. Irudian, Kornbluh dokumentalaren momentu batean.



LA MONEDA, 1973 Salvador Allende ibilbide luzeko politikari eta mediku marxista errespetatua zen Txilen hauteskundeak irabazita gobernura iritsi zenean, eta herritar askoren babesas jaso zuen (eskuinean). 1973ko irailaren 11n, militarrek kolpea eman zutenean, azkeneraino defendatu zuen demokrazia La Moneda jauregian gotortuta (ezkerrean): "Historiak epaituko ditu" esan zuen kolpistei buruz, irratian azken aldiz hitz egitean.

zen aitapontekoa. *Condor plana*-ren garaian gaude, Hego Amerikako erregimen militarrek abian jarritako programa ezkutu bat erbesteratu ezkertiarrak eliminatzen.

Politikari estatubatuarrak 1976an Santiagora egindako bidaiaren batean publikoki salatu zituen desagertze masibo horiek, baina pribatuz zera esan omen zion Pinocheti: "Allende paretik kenduta zerbitzu handia egin diozu Mendebaldeari eta lagunduko zaitugu". Babes horrek 1988ra arte iraun zuen gutxienez. Urte hartan plebiszitu bidez diktadorea bota zuten txiletarrek, nahiz

eta honek beste kolpe bat eman nahi izan zuen boterean geratzeko, *Pinochet desclasificado* liburuak lehen aldiz azalatu duenez.

Mende erdia pasata, estatu-kolpea ukatu edo justifikatzen dutenek indarra hartu dute Txilen. Pinocheten garai-ko emakumeen bortxaketak "legenda urbanoa" direla dioten diputatuak edo kolpea Allendek eman zuela dioten presidente ohiak –Sebastián Piñeirak egin bezala– aurki ditzakegu orain. Eta hori gutxi balitz, beste herrialdeetara zabalitzen ari den eskuinaren arma politikoa bihurtu da *negazionismoa*: Argentinako

presidentetzarako hauteskunde kanpainan Victoria Villarruel Libertad Avanza alderdi ultrako ordezkariak zalantzan jarri ditu herrialde hartan 1976an indarrez ezarritako diktaduraren krimenak. Villarruel VOX alderdiaren gertuko da, portzierto.

Negazionismo horrek eskuin muturra eta politikismo berriak elikatu ditzakeela jabetuta –ez Hego Amerikan bakarrik, baita AEBetan eta Europan ere–, Peter Kornbluhrek dio garrantzitsua dela dokumentu sekretuak desklassifikatzen jarraitzea. Txilen benetan gertatu zena argi geratu dadin, haien lotsarako. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Silvia Guillén

SHAKIRA SINDIKALISTA



PREKARITATEAREN ALABA NAIZ, 42 URTE DITUT ETA 22 LANBIDETAN ARITU NAIZ



Shakirak Gerard Piquéri aurpegira botatako abestiaren bertsioa egin zuen Silvia Guillének H&Mko emakume langile prekarizatuen egoera salatzeke eta bideoklipak ehunka milaka ikustaldi izan zituen munduko bazter guztietan. Ileorde ilehoriaren azpian zegoena emakume errebeldea, kantari bikaina eta ELAko sindikalista borrokalaria, aldi berean. Ezohiko konbinaketa, baina eraginkorra, bistan denez.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Rock star bokazioa izan al duzu betidanik?

Bai! [Irriz] Barañaingo Luis Morondo musika eskolan sartu nintzen txikitán, musika nire bizitzako pasioa izan delako beti. Solfeoa eta pianoa ikasi nituen, baina oso modu klasikoan eta 18 urterekin beste bide bat urratzea erabaki nuen. Iruñerrian zabaldu berria zen Arsaia musika eskolara joan nintzen eta han argi ikusi nuen nik rock abeslaria izan nahi nuela. Talde bat sortu nuen lagun batzuekin, Xilum, aspaldiko metala jorratzeko eta euskaraz. Honekin bi disko kaleratu genituen. Gero Kerasy,

Irurtzungo talde batetik deitu zidaten. Horiek metal munduan eskarmentu handiko musikariak ziren eta oso esperientzia aberasgarria izan zen.

Metalaren esparru horretan Euskal Herrian ez zegoen ia emakumerik eta nik ez nuen erreferenterik izan. Agian horregatik onartu nituen ontzat hartu behar ez nituen gauza batzuk. Erabakiak hartzerakoan, adibidez, beti bigarren planoan gelditzen nintzen. Nik ez nuen lider bat izan nahi, talde baten partaide baizik.

"Metal euskalduna emakume ahotsarekin" esaten zuten beti gutaz hitz egi-

terakoan. Nik garai hartan normalizat hartzen nuen, baina atzera begiratzean diot, kontxo! Akaso esaten dute "Su ta Gar, metal euskalduna gizon ahotsarekin"?

Garai hartan askotan komentario gogorak entzun behar izan nituen. Aho-tsean indarrak ez nuela zioten batzuek, baina ez zen egia. Beti gertatzen da gauza bera: emakume izateagatik bi bider demonstratu behar izaten duzula zure balioa. Orkestretan ere behin baino gehiagotan esan izan zidaten soineko polit bat erosteko eta ile-apaindegitik pasatzeko emanaldietara joateko.



Silvia Guillén Álvarez de Eulate

IRUÑEA, 1981



Xilum, Kerasy eta Hibakusha rock gogorreko taldeetako abeslaria izan da. Duela bi urtetik No More Blues taldean blues eta soula abesten ditu ahots urratuz. Soziologian lizentziaduna da eta Familia Bitartekaritzan egin zuen gradu-ondokoa. 22 lanbide pasa ondoren, duela bost urtetik ELA sindikatuan ari da lanean. Otsailean, greban zeuden H&Mko langileen aldeko Shakiraren kanta baten bertsioa egin zuen eta bideoklipa birala egin zen mundu mailan.

Matxismo asko aurkitu duzu musikaren alorrean?

Bai, asko. Nik, adibidez, Iruñerriko areto batean zentsura jasan nuen. Orain hamabost urte, neska batek areto horretako atezain baten sexu-erasoa jasan zuen komunean. Guk han jo behar genuen eta talde feminista batetik deitu zidaten horren berri emateko, azalduz, gainera, aretoko arduradunek ez zutela ezer egin atezain horren kontra. Iruñeko talde ezagun batekin jo behar genuen kontzertu hartan. Haiekin bildu eta publikoki aditzera eman genuen ez genuela han joko dena argitu arte.

Emakume bakarra nintzen hamasei musikariren artean eta areto horretako arduradunek nire aurka jo zuten. Boterea zuten eta niri betirako betoa jarri zidaten areto horretan. Nire inguruan zeuden gizonak ez zioten garrantzirik eman aferari. Ez nuen babesik edo elkartasunik sentitu haien partez. Hala ere, harro nago egindakoz. Talde feminista horretako kideek deitu zidaten nire jarrera eskertzeko eta esan zidaten bortxatutako neska ere oso eskertuta zegoela. Gauzak, zorionez, aldatu dira izugarri eta poztan nau ikusteak feminismoa nola ari den egiten aurrera.

Eta orain blues munduan zabilta?

Bai No More Blues taldearekin ari naiz duela bi urtez geroztik. Talde honek hogeitau urte daramatza musika munduan eta haiekin asko ikasten ari naiz. Hibakusha taldearekin ibili ondoren ez nekien zer egin. Gainera, emakumeok adinkeriaren mamua beti dugu aldamenean, eta beldur nintzen ez ote nuen izango aukera gehiago, baina, zorionez, beti ateratzen dira proposamen berriak. Ez nuen ideiarik ere soul edo bluesari buruz, baina ausartu nintzen. Abestiak nire erara egiten ditut ahots urratuarekin. Gustatu zitzairen eta hemen nago.

ELA sindikatuan ari zara lanean duela bost urtetik. Nola iritsi zinen hona?

Prekaritatearen alaba naiz. 42 urte ditut eta 22 lanbidetan aritu naiz. Soziologia ikasi ondoren, Familia Bitartekaritza masterra egin nuen eta

bestelako formakuntza ikastaroak ere egin izan ditut hainbat lanbiderekin lotuak. Arazo ekonomikoak izan ditut askotan eta honek indartu nau. Enpatizatze izugarriko ahalmena daukat, adibidez, eta hori sindikalgitzian ezinbestekoa da.

Gaztetan ezin nintzen errebeldea izan, etxeko egoera ekonomikoa ez zelako erraza. Niri errebeldia rock munduan hasi ondoren etorri zait. Ikasle garaian ikusten nuen nire ikaskideek, oro har, ez zutela lan egiteko premiarik unibertsitatea ordaintzeko, nik bezala, eta hor hasi zen garatzen nire langile klase kontzientzia. Lan egin behar nuen eta, ondorioz, karrera ateratzeko besteek baino bi urte gehiago behar izan nituen, eta ez nuen aukerarik izan atzerrian ikasteko, beste askok bezala.

Esaten didate justizia soziala dela nik sindikatu batean lan egitea, egoera zail asko bizi izan ditudalako.

Orain dela gutxi birala egin da H&M dendako langileekin egin zenuen Shakiraren kantaren bertsioaren bideoklipa...

Bai. Ikaragarria izan da. Sindikatuan hiru atal dira: zerbitzuak, industria eta giza-lana, administrazioko langileria barne, eta ni azken honetan nago. Berez, ez nintzen H&Mko langileen aferarekin harremanetan zuzenean, baina sindikatuko komunikazio arduradunek Shakiraren kantaren bertsio bat egiteko erronka bota zidaten eta nik onartu egin nuen, jakina. Etxera joan, garga gardo bat hartu eta pentsatu nuen "zer egingo luke Los Gaudules nire talde kuttunak kanta honekin?", eta hasi nintzen idazten. Arratsalde bakar batean atera zen. Gero Iker Huitzi lagun eta musikari handiaren estudioan grabatu genuen. "Ikerrap" eta "Silvira" sartu ginen grabazio estudioan barrez lehertzen. Bitartean langileek, haien kabuz, dantza bat prestatu zuten. Goiz batean Gazteluko plazan gelditu ginen bideoklipa grabatzeko eta ileorde ikusgarriak eramanez genituen argi eta garbi erakutsi nahi genuelako hura parodia bat zela. Izugarriko oihartzuna izan zuen. Handik hiru egunetara bulegora joan eta esan zidaten Julia Oterok deitu

“
Hamahiru langile hauek, 234 egunetako grebaren ondoren, abuztuaren lehenean, soldaten %24,7ko igoera hitzartzea lortu zuten”



zuela. Eta berdin Argentina, Venezuela, Kolonbia, Ingalaterra eta Espainiako Estatuko hainbat telebista katetatik ere. Azkenak deitzen ETBkoak izan ziren, handik aste eta erdira. Egoera erabat surrealista izan zen. Ehunka milaka ikustaldi izan ditu Youtuben. Ikaragarria!

Abestiari esker mundu guztiak haien egoera gogorra ezagutu duela izan da positiboena?

Bai, hala da. Oso emakume indartsuak dira. Nafarroako azken aldi honetako greba luzeena egin zuten La Morea merkatalguneko H&Mko dendako hamahiru langile hauek, 234 egunetako grebaren ondoren, abuztuaren lehenean, soldaten %24,7ko igoera hitzartzea lortu zuten. 2009an izan zen ehungintza sektoreko azken soldata igoera Nafarroan eta gerostik izoztuta egoera dira haien soldadak. Pandemiaren ondoren ELAk salatu zuen egoera hori eta 2022ko abenduaren 9an La Moreako langileek erabaki zuten grebara joatea.

Multinazional honek Iruñerrian duen beste dendako langileek ez zuten gurekin bat egin nahi izan, haiek beste negoziazio lerro batean daudelako estatu mailan, UGT sindikatuarekin. Ez zuten greba luze honetan parte hartu eta orain lortu dugun akordioak beraiei ez die berehalako



Azken hitza

MOLDE BERRIAK

“Shakiraren abestiarekin erakutsi nahi genuen borrokan ari ginela, baina umore puntu batekin, aldi berean. Uste dut eskura dauzkagun tresnak probestu behar ditugula aldi oro. Sindikalgintza moldeak berri, eta umorea ere erabili behar da, baina horrek ez du esan nahi ekintza sindikala soilik sare sozialetan arrakasta izatera bideratu behar denik. Kanean ere egon behar dugu. Egia esan, ez zen zerbait kalkulatu izan, baina asmatu genuen. Arriskutsua zen horrelako bideoa kalera- tzea, sareetan gertatzen dena ezin delako aurreikusi, baina ELAren komunikazio arduradunek argi ikusi zuten eta horregatik sareetara bota genuen”.

onurarik ekarriko. La Moreako merkatalguneko dendako hamahiru emakume langileekin sinatutako hitzarmena da eta hori bera garaipen itzela da, sektore hau oso feminizatua eta prekariora delako.

Oso borroka latza izan da. Hainbat egunez grebari eutsi ahal izan zioten sindikatuko erresistentzia kutzari esker eta baita kalean jendearengandik jaso duten babes eta laguntzarengatik ere. Horrek izugarritzko indarra eman zien. Hala ere, lanean hasi zirenean grebarik egin ez zuten enkargatuen jarrera txarrarekin egin zuten topo. Ez da oso egoera xamurra oraingoa. Gainera, hau dena ez da amaitu, hau akordio puntual bat izan delako, baina orain dator sektoreko lan hitzarmen orokor berria negoziatzeko tenorea. Ikusiko dugu.

Enpresarekin sinatutako hitzarmen horretan bideoak izan al zuen eraginik?

Bideoak gehienbat balio izan zuen langileei indarra emateko, haien egoera eta lan baldintzak biralizatu zirelako eta jendearen enpatia lortu zutelako. Ez dakit zer nolako eragina izango zuen bideoak, baina prozesu luze honetan jarrera aldatuta egon da enpresaren partetik. Pasa ziren langileak mehatxatetik eta beldurra eragitetik akordioa sinatzera. Bestalde, bideoak balio izan du Euskal Herrian egiten den sindikalgintza mota ezagutzera emateko. Sindikatu txiki batzuetan izan ezik estatu mailan erresistentzia kutxa ez da erabiltzen den tresna bat. Sindikatu etako kideen kuotaren %25 elkartasun kutxa horretara doa eta hori oso garrantzitsua da.

Nola ikusten duzu sindikalgintza gaur egun?

Uste dut langileen eskubideen inguruan asko daukagula guztiok ikasteko. Ikas- tetxeetan nahita ez digute horren berri ematen. Prestatzen gaituzte lan bat egiteko, baina gero ez dakigu zer kontratu mota dugun ere.

Beldurra, prekaritatea eta indibidualismo ikaragarria dago gizartean eta ez badugu borrokatzen pikutara goaz. Langileok argi izan behar dugu nondik datozen arazoak eta nortzuk diren errudunak. Ezjakintasun handia dago.

Bestalde, emakumeon eta migratzaileen prekarizazioa latza da. Etorkin asko galduta daude, ez dakite nora jo eta guregana jotzen dute informazio eske. Gure lana, hala ere, ez da soilik informazioa edo laguntza ematea, baizik eta prekari-

1990ean sortua



Aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbietan, 15. Hernani.
943 33 12 67
Brintza.com



mitxelena
MEKANIZATUAK



mitxelena
MEKANIZATUAK

Eztiago industrialdea 21, HERNANI 943 55 25 12 - 16
info@talleresmitxelena.eus www.talleresmitxelena.eus



tatean dauden pertsona horiek militantzara bultzatzea. Sindikalgintzara erakarri nahi ditugu haien burua ahaldundu dezaten. Gu eragile sozialak gara, ez aholku emaile soilak. Pertsona batzuek ez dute sindikatuen alde politikoa ulertzen. Batzuek uste dute haien eskubide indibidualak defendatzeko gaudela, baina gu jendea antolatze gaude, elkarrekin borrokatzeko. Sindikatuen kultura galtzeko arriskuan gaude.

Zer da lan honetan topatu duzun zailena?

Adibide bat: argi eduki behar duzu langileen eskubideen alde jokatu behar duzula beti, aurrean duzun erakunde, enpresa edo alderdi politikoa edozein dela ere. Gainera, lana oso maskulinizata dagoen arloa da eta emakume gazte bat ikusten dutenean ez diote kasu handirik egiten. Batzuetan idazkaria banintz bezala begiratzen naute. Gizonezko batekin joaten banaiz, maiz hari hitz egiten diote soilik. Jarrera horiek, hala ere, niri indarra ematen didate.

Azkenaldi honetan sindikatua emakumetzen saiatzen ari gara eta gure artean elkar babesten dugu.

LGTBI kolektiboko aktibistatzat jotzen duzu zeure burua?

Ni ez naiz inoiz aktibista sutua izan. Lesbianaren etiketa jarri zidaten, baina ez naiz lesbiana. Nik etiketarik gabe bizi

nahi dut. Bi emakume bikotekide izan ditut eta batekin ama izan naiz, eta gizonzko bikotekiderik ere izan dut. Ez dakit zer naizen, baina moldeak apurtzeko ni beti prest.

Egunerokotasunean beti defendatu ditut nire eskubideak pertsona gisa.




Batzuek uste dute haien eskubide indibidualak defendatzeko gaudela, baina gu jendea antolatze gaude, elkarrekin borrokatzeko”

Ez naiz inoiz isildu, baina eremu pertsonalera mugatzen da nire militantzia. Nire ingurukoak hezten saiatzen naiz. Nire gurasoek, esate baterako, ez zuten ulertzen nire izaera eta ama izan nintzenean gogorra izan zen. Egia da, bestalde, musikak plataforma bat eman didala nire bizitza pertsonalaz publikoki hitz egiteko, eta ez naiz inoiz isildu, ez dudalako ezer ezkutatzeko.

Sexu disidentziaren agerpen sozialean, ikusi duzu aldaketarik urte hauetan?

Zalantzarik gabe. Orain, egia esan, zaharkituta ikusten dut neure burua, belaraldi berriek hau dena erabat gainditua dutelako. Emozionalki osasuntsuagoak direla uste dut. Adibidez, nire semeak, zazpi urterekin, badaki identifikatzen zer sentitzen duen. Bere adinarekin kostata egingo nuke halakorik.

42 urtez kosta egin zait, baina indartsu sentitzen naiz orain. Banandu berri naiz eta erronka berria da bikotekiderik gabeko amatasuna. Baina nire señoartasunarekin oso pozik nago. ●



Hemendik aurrera



KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Sartu gara, sartu gaituzte ikasturte akademiko-politiko berrian. Eta zer egin behar dugu euskaldunok hemendik aurrera?

Katalunia dugu interes gune berriro ere. Nolabait laburtzearen, independentzia helburu hartuta, 2017an hainze bolada gaiztoen aurka burutu zuten herri-erreferendum hartatik eta ondoren gertatu zenetik, ildo desberdin eta batzuetan kontrajarriak ere ikusi izan ditugu hango mugimendu independentistan.

Orain balantzea eginda, itxura ematen du *Puigdemont ildo*a suertatzen dela garaile lehia horretan, eta *Junqueras estrategiak* porrota ekarri diola ERC alderdiari, nahiz eta bere garaian hauteskundeetan irabazi eta Generalitateko presidentzia eta gobernu osoa berarentzat gorde.

Zergatik, baina? Balizko progresista zen gobernu espainiarra lagundu eta harekin negoziazioak bideratzeko estrategia kamutsak, praktikan gobernu horren mende eta eskuak lotuta utzi ditu ERCkoak.

Puigdemont estrategiak, aldiz, une larriak ezagutu arren, aurrerapausoak lortu ditu Espainiako Estatuarekiko konfrontazio deklaratuak, eta estatutik kanpo, European, mantendu duen erreferentzialtasun politikoa ez da sinboliko hutsa izan. Aitzitik, Espainiako Estatuaren atzaparretatik libre ibiltzea lortu du

Urkullu bera eta bere
gobernuak gainbeheran
datoz aspaldian,
eta azken uneko
asmakizunak, konbentzio
konstituzionalaren
estilokoak, ez du
hondoratzetik aterako

eta bide batez estatu hori kuestionatu du Europar Batasun barruko hainbat nazioaren aurrean: Finlandia, Alemania, Flandria eta Belgikako Estatu bera, Eskozia eta Erresuma Batua, Sardinia eta estatu italiarra...

Eta orain, horri esker, oso bestelako indar posizioa agertzen du Espainiako Estatuaren aurrean, harentzat oso nabarmena den gobernu berriaren osaketa prozesuan. Ikusteko dago noraino eramango duen jarrera irmo hori. Horri eustea eskatzen dio, gainera, Katalunian bertan independentziarako bidean berriro abiatu nahi duen herri mugimendu mobilizatuak eta, batez ere, Diadaren zein ANCren inguruan antolatuenak.

Badugu hortik zer ikasi euskaldunok. Hego Euskal Herrian, Urkulluren eta Txibiteren gobernuetatik ezin dugu

balantze baikorrik egin. Urkulluren hamar urte luzeek lehendakaritzan ez dute aurrerapausorik ekarri autogobernua, eta kalte nabarmena gertatu da gizarte kudeaketan, oinarriko sektore publikoetan; gaur egun krisi irekiak mantentzen ditu euskararako hizkuntz politikan zein EITBn, osasun sisteman, hezkuntzan, etxebizitza sektorean, azpiegituretan, Ertzaintzan, zaintzan, turismo eta zerbitzu sektorean... Urkullu bera eta bere gobernuak gainbeheran datoz aspaldian, eta azken uneko asmakizunak, konbentzio konstituzionalaren estilokoak, ez du hondoratzetik aterako. Txibiteren kasuan, merkeegi berri zaion aginteak aukera ematen dio aurreko legegaldiko gaitz guztiei eusteko, euskararen aurkako diskriminazio mingarria tartean.

Lizarra Garazi gogora etorri zaigun uneotan, EAJ zein EH Bildu alderdi abertzale botoetan nagusiak direnek badute, aldiz, zer aztertu eta zuzendu aurrera begira. Baina, batez ere, herri erakunde indartsuen premia dugu Euskal Herri osoan, bakoitzak bere eremuan, euskal naziozintasuna sendoa egunerokotasunean bultzatuko dutenak. Aldatu Gidoia agintzen diote, arrazoi osoz, dozenaka herri erakundek egunotan Urkulluren Jaurlaritzari eta EITBri. Aldatu gidoia eskatu behar diegu, halaber, alderdi abertzaleei. Aurrera begira, ez egin atzera berri. Aurrera egin euskal naziozintasun. ●

Amesten dudan eskola



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA 

Etorri dira ume eta gaztetxoak. Eskola baten irudi aseptikoa ez duen espazioan sartu dira, non etxean bezalako mahaiak dauden, hainbat tamaina eta koloretako aulkiak, la-sai egoteko sofa modukoak, landareak, lanparak, egur oneko apalategiak, usain gozoa, aldizkariak, musika entzungailua, ordenagailuak, jolasak, liburuak, afitxak. Etxean topatu dezakeguna baino zabalagoa da eskolak egiten digun eskaintza, liburu gehiago, jakintza-esparru handiagoa, edota harreman sare aberatsagoa. Baina gainerakoan, etxe handi bat da eskola, non behar dugun guztia egin eta aurki dezakegun. Denaren ginetik, bizitoki bat da.

Hantxe topatu gara, zenbait adinetakoak, haur ttipi, mutiko eta neskatila koskor, nerabe eta gaztetxo, gu, helduok. Elkarrekin gaude, nahasi, handiagoen-gandik imitazioz ikasteko gogoz txikiak, eta oraindik hain autonomo ez diren horien zaintzan trebatzen, heldu-xeagoak. Komunitate naturala osatzen dugu, non ez goazen adina galdetzen ikaskideak edo lagunak egiteko momentuan. Egin nahi dugun zerbaitekiko interes partekatutak elkartzen gaitu batzuetan, gertakari batek besteetan, auskalo. Beti, komunitate bereko partaide izatearen loturak, afektuak.

09:00ak dira, eta asanbladan elkartu gara. Elkar topatzeko unea da; nola gauden, zer umore dugun, dena ongi doakigun. Eguna antolatuko dugu oraintxe, zer egin nahi lukeen bakoitzak, edo zer behar duen, nola bateratu daitekeen hori egin beharreko proiektuekin, hartutako konpromisoekin. Txikiak hor egongo dira, kasik entzule huts gisa, begira, ez luzaroan adi. Handiagoak, ordea, aztoratu samar daude gaur. Bezperako gertakari gatazkatsu bat ekarri dute mahai gainera, elkarbizitza alderen batean erregulatu beharra sentiarazi die-na. Uste dut luze joko duela gaurkoak, denak lasai gelditu arte, arau berria formulatu arte, hausturak ekarriko duen ondorioa adostu arte. Gaurko akta egitea Juneri dagokio, eta hor ari da, denok ulertzeko moduan idazteko ahaleaginean. Kultura demokratikoa jorratzen dugu.

Altxatu eta badoa bakoitza bere lanera, bere eginkizunetara, hilabete honetarako hautatu duten proiektuan lan egitera. Txiki gehienak kanpora doaz, korrika eta salto, hondarrera, iturrira, naturan jostatzerara. Beste batzuk etzan egin dira, goxoan, helduengandik hurbil, ipuinen baten kontakizuna entzuterara. Talde handi samar bat antzerki obra lantzerara, jantzien diseinu eta joskintza, hain zuzen, Iker bidelagunak horretan

duen trebezia baliatuta. Eta beste bikote bat flauta ikastaroa prestatzen ari da, datorren asteko tailerrean gainerakoei eskaintzeko.

Handienen kasuan, eguneko bazkaria prestatzeaz arduratuko da boskote bat, beren txanda da-eta, eta pazzo astean egingo duten bidaiaren prestaketan dihardu beste talde batek. Menuak pentsatuz, dirua zaintzen ikasiz, finantziarioa lortzeko kudeaketak eginez, eta rutak diseinatuz ikasten baitira geografia, matematika, hizkuntza eta biologia. Norberak diseinatzen du bere curriculum-a, bizitza naturalean bezala.

Badira hurrengo urtean unibertsitate-ra joan nahi duten bi gaztetxo, eta proba prestatzen ari dira Itziar bidelagunaren laguntzarekin batera. Udaneri, azkenik, interes handia piztu zaio hizkuntza-taldekoekin batzeko, udan lagun estatubatuarra egin baitu. Ingelesa ikasi nahi du.

Goiza halaxe pasa ondoren, iritsi da garbiketaren momentua. Erabilitakoa bere tokian eta egoera onean utzita, komunak, tailerrak eta sukaldea pixka bat sakonkiago garbitzen dugu denon artean, txandaka. Ez dugu garbitzailerik behar, noski.

Eta besterik gabe, *agur, arratsalde ona pasa, bihar arte!*

(Bai, ametsa da, baina ez ameskeria). ●



NEKANE TXAPARTEGI
KAZETARI FEMINISTA

Emakume* gorputza, erresistentzia territorio

Caliban eta sorgina irakurri nuenean, ez nuen uste Euskal Herriko erresistentziari aipamena egiten zion idazlea noizbait topatuko nuenik. Joan berri den abuztuan, ordea, aukera izan nuen Silvia Federici elkarrizketatzeko eta idazle eta pentsalari feminista antikapitalista pertsonek ezagutzeko Zurichen.

Irribarrea ahoan, *zerbait ari da gertatzen* esanez hasi zuen Zuricheko hitzaldia, euripean beteriko harmailei begira. Horri buruz galdetu genion irratiko erredakzio feministakook gero, zer esan nahi ote zuen hitz horiek. “Hainbeste jende hemen batzeak ez du Federicirekin zer ikusirik, baizik eta gero eta gehiago direla, konturatzen direnak, emergentzia batean bizi garela”.

“Bizitzaren prekarizazioa eta komertzializazioa, migrazio hiltzailea, feminizidioak, etorkizuna desastrea da eta jendea horren jakitun da. Orain kontua da nola antolatu, nola borrokatu hori eraldatzeko. Ez gaizki dagoenaren kontra, guk eraiki nahi dugun horren alde baizik”. Akademiako askok ez bezala, Abya Yalako emakume indigenen erresistentziak izan zituen eredu, komunitate borrokak mintzagai. Europa txuri kapitalista honetan, arrotz berak aipatutako antolatze moduak, indibiduoak, identitatea, ni-a eta egoa erdigunean diren mugimenduetan. Niretzat berriz,

Euskal Herri okupatu bezala bizitako erresistentziak pentsagai.

Nire gorputza territorio bilakatzearen kontzeptuaz aritu zen eta horren esanahiaren bi zentzuez, gorputza defendatzea delako lurra, herria, defendatzea eta ondorioz baita bizitza ere. Ezin ditugu gure emakume* gorputzak atzera irabazi, ez badugu bizi garen lurra, territoria, irabazten. Lotura hori beharrezkoa dugu, leku segurua aske bizitzeko, eta kapitalismoa behin eta berriz hori eteten saiatzen da. Dantzatu, besarkatu, elkartrukatu, arazoez hitz egin... Gorputza borrokarekiko, lurrarekiko, herriarekiko lotura da.

Gure emakume* gorputzen kontrola etengabekoa da hainbat garaitan eta hainbat testuinguru politikotan. Gorputz hutsak bezala definituak, zentzurik gabekoak, lanak gorputz horren arabera banatuz, biologikoki-naturalki: etxeko zaintza, amatasuna... Sorgin ehizatik hasi eta gaur egun arte patriarkatuak diziplinatu nahi gaitu gure gorputzak okupatuz, bortxatuz eta erailez. Kapitalismoak, berriz, horiek ustiatzen ditu eta zaintza lanei balioa kentzen die.

Horregatik, gorputz okupatuak antolatuz eta erresistentzia territorio bihurtuz, greba feminista izango dugu tresna Euskal Herrian: kalean, espetxeetan, etxean eta lantokietan gure bizitzak erdigunerara ekartzeko eta sistema iraultzeko! ●



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Espainol Herria

Sarritan gertatu zait Iparraldean euskaraz egin eta parekoak gaztelaniaz erantzutea. Iparraldekoie ere gertatu izan zaie. Beraz, espainieraz egiten digutenean buruan, besteak beste, ideia hau dago: euskara = Espainia.

Espainiako Vuelta txirrindularitza lasterketan *Televisión Españolako* esatariak jaurti zuen espainol batuan: Ehüjarreko arroila, Zuberoan, espainiar eragina duen Frantziako hiru probintzietako bat. Espainiar esan aurretik geldialdi bat egin zuen, *provincia vasca* esango zuela ematen zuen, baina hobeto pentsatu, eta *vasca* izanez gero nola liteke frantziarra izan

hausnartu, eta Espainiarako bereganatu zuen. Euskal = espainiarra.

Espainiar batzuek defendatu dute Espainiako Parlamentuan euskara erabili ahal izatea: euskara ere estatuko hizkuntza da; beraz, espainiarra ere bada. Asmo onez, baina integrazioa helburu. Euskara = Espainiako.

Geuk ere ez dakit ez ote dugun ideia hori indartzen jarrera batzuk kontuan hartuta: gaztelaniaz jardunda gure artean, *euskañola* erabilia, edota Espainiako Estatuko zenbait ohitura gure eginda.

Espainol Herria bihurtu ote dugu Euskal Herria? Arrazoia ote du *DNI*ak? ●

Ertzaintza eta Israelen arteko anaitasuna



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Koronabirusak eragindako zisma politikoari, Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkari eta Pegasus espioitza sareari dagokienez, Iñaki Izquierdo kazetariak hauxe idatzi du: “Pandemia, gerra eta kapitalismoaren hondamendiari ezer falta ez izateko, Mossad agertu da berriro”. Ertzaintzaren kasuan, Mossad behin eta berriz agertzen zaigu.

Israelgo segurtasun agentziaren eremuan dagoen enpresa bat arduratzen da Ertzaintzaren Erandioko eta Oiartzungo superkuartelak zaintzeaz, baita Polizia eta Larrialdietako Eukal Akademiaren segurtasunaz ere. ICTS enpresari buruz ari naiz, Espainiako aireportuetako sarbideen kontrolean espezializatua da eta Eusko Jaurlaritzak kontratatu zuena Bermeo, Ondarroa, Lekeitio eta Mundakako portuetako segurtasun zerbitzua emateko. Horra konfiantza adibide bat.

Ausardia horien ondorioz, Ertzaintzak erabiltzen duen telefono-entzuketara sistemaren jabea Verint Systems israeldarra da, Pegasus *spywarea* saltzen duena. “Ahotsa grabatzeko ekipoak” Neptune Intelligence Computer Engineering (Nice) enpresari erosi zizkioten, enpresa hori Israelgo Armadako kide ohi batzuek

Afera ezagunena da Israelgo inteligentzia zerbitzuko kargu ohi batzuek osatutako enpresak granada jaurtigailu bat eta balen aurkako txalekoak saldu dizkiola Ertzaintzari

sortu zuten. Motorola Solutions, Israelgo Armadaren *smartphone*-etarako enkriptatze-sistemaren fabrikatzailea, Ertzaintzaren Enbor Komunikazio Sarearen eta euskal poliziaren Tetra irrati mugikorreko sare digitalaren grabazio-sistemaren euskarrien arduraduna da.

Aspaldiko jarraibidea da. Ertzaintzaren Komunikazio Sareko irrati loturen instalazioa Ceragon Networks eta ECI Telecom konpainia israeldarren ardurapean burutu zen. Israelgo teknologia banatzen zuen enpresa batek, Micro-Link-

ek, bideozaintzarako kamerak bidali zizkion Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, Ertzaintzak Israelen orratz baten tamainako mikrofonoak erosten zituen bitartean. Garai hartan, Tanduo Technologies & Security Systems israeldarrak, Israelgo Barne Ministerioiko kontratista zenak, ikastaroa eman zion Ertzaintzari.

Anaitasunaren beste erreferentzia bat aipatzearen, S21sec talde gasteiztarrek Voyager Labs israeldarraren produktuak banatzen ditu. Talde hori Ertzaintzaren informazio sistemaren aholkularitza zerbitzuez arduratzen da. S21sec taldeak, Ertzaintzaren kontratista diren Ikusi eta Vicomtech erakundekin batera, Carper segurtasun proiektu europarrean parte hartu zuen, Israelgo Barne Ministerioaren lankidetzarekin.

Afera ezagunena da Israelgo inteligentzia zerbitzuko kargu ohi batzuek osatutako Guardian Defense & Homeland Security enpresak granada jaurtigailu bat eta balen aurkako txalekoak saldu dizkiola Ertzaintzari. Herri batzuetako udaltzainek Rabintex marka israeldarraren balen aurkako txalekoak erabiltzen dituzte.

Beraz, CAF Beasainena Jerusalemen ez da anekdota hutsa, zuhaitz batek ez baitu uzten basoa ikusten. ●



17 euskalategi, eskaintza zabala eta dirulaguntzak

Euskarari baietz

Matrikulazio epea zabalik euskaltegietan!



Bilbao

OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatzen eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

ENTRENATU GAITEZEN INDARKERIA EZ ERABILTZEN

Kirola ahalik eta jende gehienek eta ahalik eta urte gehienetan egitea mesede da gizarte osasuntsu baterako. Baina ikerketen arabera, kirola egiten duten hamarretik ia zortzik indarkeria egoeraren bat jasan du. Izan daitezke irainak, oihuak, kolpeak, zigor fisikoak, arretarik eza, umiliazioak, diskriminazioa, behartutako muxuak, bortxaketak... Zenbat gaztetxok utzi du kirola testuingurua segurua eta adeitsua ez zitzaiolako?

Irailaren 1etik aurrera Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban indarrean den legeak kirol taldeetako partaide denen begirada trebatu nahi du, kiroleko indarkeriari ez-ikusia egiteari utzi diezaiogun guztiok. Indarkeriazko jarrerak desaktibatzeke entrenamendu ordu asko beharko dira oraindik, hau bide luze baten hasiera baino ez da. Esfortzuak merezi du, ordea, gaztetxoek osasuna eta kirolarekin izango duten harremana baitago jokoan.

ESTITXU EIZAGIRRE

Kuota bera ordainduta, hainbat herriko futbol klubetan A taldeko gaztetxoek astero entrenamendu egun bat gehiago izango dute gainerako taldeetakoek baino. Egiturazko diskriminazioak hain lasai onartzen ditugu kirolean. Imaginatzen astero eskola egun bat gutxiago balute gelako nota onenak ateratzen ez dituzten ikasleek? Hain ditugu barneratuta kirol munduko indarkeriak, beste eremuetan onartuko ez genituzkeenak kirolean normaltzat hartzen baititugu. Ikasturte honetan, kirol taldeetako kide guztiek erremintak dituzte eskura gaiari buelta batzuk emateko, indarkeria egoerak ikusteko begiradak trebatzeko eta errespetuzko testuinguru segurua lantzen saiatzeko.

Izan ere, *Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruz-*

ko Lege Organikoa atera zuen 2021ean Espainiako Gobernuak. Pixkanaka ari da garatzen gizarteko hainbat alorretan, eta irailaren 1etik aurrera indarrean dago Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, kirol eta aisialdi esparruan. Lege Organikoak 47. eta 48. artikuluetan arautzen du eremu hau, eta Eusko Jaurlaritzak eta hiru aldundiek, beste hainbat aditu eta erakunderekin batera, lege horretan oinarrituta protokolo bat prestatu dute kirol taldeen eskura jartzeko, eta formazioa eta aholkularitza ematen ari dira adin txikiko pertsonekin esku hartzen duten eragile guztiei: kirol taldeetako entrenatzaileak, medikuak, arbitroak...

Itsaso Nabaskues Laserasekin bildu gara, bera da protokoloa lantzen arituen teknikarietako bat. Kirola egiteko testuinguru segurua izatea oso garran-

tzitsua dela azaldu du: "Kirola oso ona da garapen integralerako, sozializatorako, gorputz eta bururako. Ezinbestekoa da haurrei testuinguru segurua eta positiboa eskaintzea, bereziki hasierako adinetan, kirola bizitza osoan zehar egiteko aukera izan dezaten". Izan ere, Nabaskuesen ustez, kiroleko mikroindarkeriek izan dezaketek ondorio larriena da haur eta gaztetxoek kirola uztea: "Egoera zail edo indarkeria egoera bat bizi izan badugu esparru batean, seguraski ez dugu itzuli nahiko. Hori ondorio larria da, hasierako adinetan finkatzen direlako kirol ohiturak helduarora begira".

"KIROLEAN EMATEN DIREN INDARKERIAK OSO NATURALIZATUTA DITUGU"

Bizitzako beste eremuetan bezala, kirol



Indarkeriazko egoera zena testuinguru seguru bihurtzeko, kiroleko eragile guztiak dute autokritika eta behaketa egin beharra: adin txikiko kirolari, guraso, arbitro, entrenatzaile, mediku, zuzendari...

esparruan ere indarkeria egoerak ematen dira. Gai honen inguruan dauden ikerketen berri emateko, iaz Montse Martí adituaren hitzaldia antolatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak. Martí azaldu zuenez, bizitzako beste esparruetan indarkeria gehiago ematen da kirolean baino, baina hala ere ez da txikia kirolean ematen den kopurua: 1.472 pertsonak parte hartu zuten ikerketak agerian jarri zuenez, horietatik %78ak kirolean gutxienez indarkeria egoera bat bizi izan zuten. Ikerketa beraren arabera, indarkeria ohikoena (%70) psikologikoa da. Eta errendimenduzko kirolean dabiltzanek jasaten dituzte gehiago. Nabaskuesen hitzetan, "ikerketa hau ezagutu ostean, lege hau erabat beharrezkoa da. Ezinbes-

tekoa da indarkeriaren gaia kirol esparruan ere lantzea".

Zer datorkizu burura kiroleko indarkeriaz pentsatzean? Fisikoari buruzko iruzkinak egitea edo lesionatuta egonda jokatzera behartzea normalizatzen al daukazu? Kirol taldeen eskura dagoen oinarrizko protokoloa idazterakoan, teknikariek indarkeria mota anitzak hartu dituzte kontuan: psikologikoa, fisikoa, sexuala ukituzkoa, sexuala ez ukituzkoa, eta utzikeria. Esparru horietako bakoitzean, mikroindarkeriatik hasi eta bortizkeria handienetarako jokabideak zerrendatzen ditu protokoloak (erreportaje honetako 29. orriko koadroan dago ikusgai). Protokoloa lantzen aritu

den Nabaskues teknikariak adierazi duenez, "Kirol esparruan, oihu egiten duen entrenatzaile bat ongi ikusia dago, diziplina eta fundamentua duela ematen du. Kirolean mikroindarkeria asko daude naturalizatuta eta barneratuta, eta horiek ez genituzke beste testuinguru batean onartuko".

Protokoloak badakartza galdera batzuk ere, kirol taldeetako eragile bakoitzak bere buruari egin ahal dizkionak, galdera hauen bidez indarkeria egoerak detektatzen ikas dezagun, eta ezikusia egiteari uzteko (ikus erreportaje honetako 27. orriko koadroa). Izan ere, indarkeriari aurre egiteko eragile guztiak dira parte aktibo protokoloan: entrenatzaile, kirol zuzendari, mediku, arbitro,



Andrew Geddes 18 urteko kartzela zigorra betetzen ari da, 12 eta 17 urte bitarteko lau tenislari bortxatzea egotzita.

guraso eta kirola egiten duten adin txikiko haur eta gazteak.

PROTOKOLOA KAXOIAN GERATZEKO ARRISKUA

Gaia lehen lerroan jarri dute Luis Rubialesek Espainiako Futbol Federazioko lehendakari zela Jenni Hermoso jokalaria emandako musu behartuak eta Angelique Cauchy tenislariak Frantziako legebiltzarrean emandako testigantzak. Aldiz, inor ez zaizu tabernan mintzatuko ikasurte honetan kirol talde denetan indarrean jarri den lege honetaz eta protokoloez. Kirol taldeetako zuzendaritzek eta entrenatzaileek email bidez jaso dute administratziotik honen berri, eta horietako askok jaso du dagoeneko gaiari buruzko berriazko formazioa.

Baina Nabaskuesek azpimarratu duenez, kirolariak eta familiek jakitea da gakoa, indarkeria egoerarik bizi badute jakin dezaten kirol taldeek legez prebentzioa eta gatazken ebazpena landu behar dituztela, eta horretarako hainbat erreminta badi-tuztela: protokoloa, formazio saioak eta aholkularitza, hain zuzen. Gurasoek eta adin txikiko kirolariak honen berri jakin ezean, protokoloak arrisku handia du kaxoian geratzeko, eta gauzek dauden moduan jarraitzeko. Nabaskues: "Abiapuntu gisa kirol taldeei eskatzen ari garena da protokoloak sare sozialetan zabal-

tzea, webgunean jartzea, gurasoen whatsapp taldean zabaltea, klubaren egoitzan laburpen taula jartzea, haurrei jakinaraztea edozein indarkeria kasu bizi badute kirol talde barruan noengana jo dezaketen...". Nabaskuesek argi du begiraleei ikastaro bat emanda eta protokoloa zabaldua soilik ez dela indarkeria gaindituko: "Ez da erraza izango, kirol munduan errotazio handia ematen delako. Kontziente gara abiatu baizik ez garelako egin, eta administratziotik ere lanean jarraitu beharko dugula honek benetako eragina izan dezan".

Nabaskuesek kirol taldeak motibatuta nahi ditu gai honetan jarrera aktiboa izatera: "Elkartea osatzen duten pertsonen ikuspegia ezinbestekoa da: gai honekiko sentsibilizazioa, talde bakoitzak gai honi ematen dion garrantzia... Badakigu kirol talde txikietan beste zeregin bat gehitzen zaiola eguneroko errealitateari eta badakigu lankarga bat ekartzen duela, ahalegin bat. Baina benetan uste dugu administrazioak tresnak eskaintzen jarraituko duela eta denen parte-hartzea ezinbestekoa dela honekin aurrera egiteko. Kontziente gara kirol talde asko bolondresen lanari esker ateratzen dela aurrera eta formazio ikastaro hauek dohainik dira eta on-line. Ahalik errazen egiten saiatu gara, alde ekonomikotik eta edozein momentutan etxetik konektatu ahal izateko moduan".

"Egunean hirutan bortxatzen ninduen entrenatzaileak"

Frantziako Estatuan 600 kirolarik salatu dituzte sexu erasoak

Europa mailan egindako ikerketak batek (*Kirolean adin txikikoek aurkako indarkeria ezberdinen prebalentzia eta ezaugarriak*) erakutsi du kirol mailan gora egin ahal indarkeria kopuruek gora egiten dutela. Zergatik ote? Nabaskuesen ustez, "emaitzaren gaineko presioarekin du zerikusia, badirudi emaitza lortzeko denak balio duela eta tentsio asko sortzen den testuingurua da. Bestalde, entrenatzailearekin ordu asko pasatzen dira. Beldurrak ere handiagoak dira kirolariarentzat: zerbait esaten badu ez diotela jokatzeko deituko, adibidez".

Honen guztiaren adibide da Frantziako Estatuan 600 kirolarik salatu dituztela sexu erasoak: tenislariak, patinatzaileak, judolariak, atletak... Duela 20 urtekoak dira lehen salaketak, baina asko egungoak dira, 2020-2021 denboraldikoak 107. Horietatik %70 emakumezkoek jasan zituzten eta %84 adin txikikoak ziren erasoak pairatu zituztenez.

Azken asteotan Frantziako legebiltzarrek komisio bat sortu du gaia aztertzeko eta Angelique Cauchy tenislariak bertan kontaktu du auzitegietan jada salatua duena: 12 urte zituela, bi urtean 400 bider bortxatu zuen bere entrenatzaile Andrew Geddes-ek. "Egunean hiru bider bortxatzen ninduen" esan du Cauchy eta azaldu du bere buruaz beste egitea pentsatu izan zuela. Tennis munduan entrenatzaile horrek izan duen inpunitatea ere salatu du Cauchy: "Omertá moduko bat zegoen, nahiz denek jakin egiten ari zena susmagarria zela. Nola ez zeuden seguru, beren buruei esan zieten afera ez zegokiela haiei, gurasoei baizik. Baina akatsa da umeak ez babestea". Emakume batek gaia atera zion klubeko lehendakariari, baina erantzun hau jaso zuen: "Bai, baina tituluak ekartzen dizkigu".

INDARKERIA KIROLEAN

DETEKZIO GOIZTIARRERAKO GALDERAK

Norberak bere jarrerak kritikoki aztertzeke eta inguruan indarkeria egoerak detektatzeko, protokoloak hainbat galdera planteatzen ditu eragile bakoitzarentzat: entrenatzaile, kirol zuzendari, mediku, arbitro, guraso eta adin txikiko kirolarientzat.

Hemen laburtuta kirolari, guraso eta entrenatzaileenak. Galdera guztiak ikusteko, jo protokolora.

ADIN TXIKIKO KIROLARIENTZAT

Norberak bere buruari eragindako indarkeria

? Ongi pasatzen duzu?

👁️ Ba al da zorionsu ikusten ez duzun taldekideren bat?

Pertsonen arteko indarkeria

? Zure kideak errespetuz tratatzen al dituzu?

? Taldekideek errespetuz tratatzen zaituzte? Iraintzen edo gaizki sentiarazten zaituzte?

? Entrenatzaileak errespetuz tratatzen zaitu?

Testuinguruko indarkeria (normatiboa, egiturazkoa)

? Zure iritzia kontuan hartzen dute zure taldearen, klubaren edo federazioaren erabakietan?

? Zure taldean, klubean edo federazioan diskriminatua sentitzen zara?

GURASOENTZAT

Norberak bere buruari eragindako indarkeria

👁️ Zure seme-alabek ongi pasatzen dute kirola egitean?

👁️ Zure seme-alabek gorputz lesio deigarriak dituztela ikusi al duzu?

👁️ Elikaduraren inguruan modu deigarrian hitz egiten du?

👁️ Tarteka erreparoa jartzen ditu entrenatzera joateko?

Pertsonen arteko indarkeria

? Lehiaketa bat seme-alabekin komentatzen duzunean, soilik emaitzaren inguruan galdetzen diozu edo egunari eta gozatzeari buruz ere?

? Zure seme edo alabaren partidak, lehiaketak, entrenamenduak ikustera zoazenean, animatu egiten duzu, edo kritikaren bat egiten duzu entrenatzaile, jokalaria edo epaileez?

Testuinguruko indarkeria (normatiboa, egiturazkoa)

👁️ Igartzen duzu zure semeak edo alabak taldean, klubean edo federazioan diskriminatuta daudela? Adibidez, berdintasunik gabeko tratua, instalazioetara sarbide ez parekoa...

ENTRENATZAILEENTZAT

Norberak bere buruari eragindako indarkeria

👁️ Entrenatzen dituzun kirolariek ongi pasatzen dute? Galdetu diezu?

👁️ Zure ustez, kirolariren bat bereziki triste dago, edo aldartea aldatu egin zaio? Zer gertatzen zaion galdetu diozu?

Pertsonen arteko indarkeria

? Adingabe lesionaturen bat entrenatu edo jolastera behartu al duzu?

? Entrenatzen duzun adingaberen bat umiliatu al duzu, edo barregarri utzi?

? Oihu egiten duzu, edo estilo erasokorrarekin zuzentzen al zara, esaterako irain edo mehatxuekin?

? Aldageletara sartzen atea jotzen duzu eta sartzeko baimena jaso arte itxaroten duzu?

? Karga sexuala daukaten txistek edo iruzkinak egiten dituzu, edo "ismoetan" oinarritutakoak (sexismoa, arrazismoa...)?

👁️ Noizbait jokabide txarren bat ikusi al diozu familiari, lehiaketan edo entrenamenduren batean? Esku hartu al duzu?

? Nola ziurtatzen duzu adingabeek modu egokian tratatzen dutela elkar lehiaketetan, entrenamenduetan eta aldageletan?

Testuinguruko indarkeria (normatiboa, egiturazkoa)

👁️ Zure ustez, entrenatzen dituzun adingabeak diskriminatu egiten dituzte, klub edo federazio bereko beste batzuekin alderatuta?

? Entrenamendu, lehiaketa eta partiden aurretik erabiliko den materiala eta instalazioak ikuskatzen al dituzu?



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY SA

PROKOLOA EGIN DUEN LANTALDEA

Itsaso Nabaskues Laseras, protokoloa landu duen teknikarietako bat da: "Duela pare bat urte osatu genuen lantaldea erakunde hauetako teknikarien artean: Eusko Jaurlaritza (berak eraman du lidergotza, berari dagokiolako eskumena), EAEko Aldundiak, EHU, Athletic-en Aterpe Fundazioa (gai honetan oso murgildua dagoena), UNICEF eta Educo".

NOLA JOKATU

Legeak hala eskatuta, kirol taldeek bere kideetako bat "babes ordezkarri" izendatu behar dute, eta berea izango da detekzioa sustatzearen, arazoak bideratzen saiatzearen eta protokoloa betetzearen ardura. Horregatik, indarkeria egoeraren bat sumatzen duenak, harengana jotzea du lehenengo pausoa. Hala ere, Nabaskuesek argi utzi nahi izan du babes ordezkarria ez dela gatazketan epaile izango: "Bere ardura da halako egoera baten berri duenean, protokoloan zehaztutako urratsak ematea eta dago-kion pertsonari komunikatzea. Administrazio publikooi falta zaigu zehaztea kasu horien ikerketa nola burutuko den eta zer erakundek izango duen horretarako ahalmena".

Kirol taldeek "babes ordezkarri" ardurarako kide egokia aukeratzea funtsezkoa da: "Haurrentzako gertuko pertsona izan behar du, enpatikoa, bestela ez zaizkio beraien bizipenak kontatzera joango". Babes ordezkarriari ikastaro bat emanda ez dela aski dio Nabaskuesek, eta norabide horretan administrazioak epe luzerako lana egin behar duela: "Figura honentzako etengabeko formazioa ezinbestekoa da. Ez da edozein gai, eta ongi etorriko litzateke babes ordezkarriak aurrez aurre elkartzeko espazio bat sortzea, begirada eta esperientziak partekatzeko eta zalantzak argitzeko".

Arrazoiak arrazoi babes ordezkariekin egoera askatzen ez den kasuetarako, gurasoek eta adin txikiko kirolariek badiutze gai honetan trebatutako aholkularitza zerbitzu publiko hauek ere: Zeure Taldekoak Gara eta Zeuk Esan.

ORAINGOZ ZIGORRIK EZ

Lege Organiko honek oraindik ez du garatuta zigorren atala eta kirol taldeen eskura jarri den protokoloan ere ez dira zehazten indarkeria egoera bakoitzaren aurrean zer ondorio jarri: "Protokoloan jasotzen den jarraibidea da 'babes ordezkarriak' indarkeria egoera baten berri badu, Zure Taldekoak Gara zerbitzura jo behar duela eta han aholkatuko diotela nola jokatu", Nabaskuesek azaldu duenez. Eusko Jaurlaritzari lotua dagoen erakunde hau gaian oso jantzia dagoela esan du, eta erremintak edo neurriak proposatzen dizkiela kirol taldeei: "Adibidez, erasoa gauzatu ahal izan duen pertsona horri laguntzarako norbait jartzea gainbegiratzeko nolako ekintzak egiten dituen, edo aste batzuek kasua argitu arte ez etortzera gonbidatzea, edo...".

Protokoloa garatu zuen teknikari taldea orain monitorizazio sistema garatzen ari da. Nabaskuesen hitzetan, "monitorizazio sistema ebaluatzeko modua da". Eusko Jaurlaritzak plataforma bat irekiko du, eta bertan kirol talde bakoitzeko babes ordezkarriak urtero hainbat datu sar-

tu beharko ditu, adibidez, zer prebentzio ekintza aurrera eraman dituzten, beraien taldean zer indarkeria kasu egon diren... "Jarraipena egitea da helburua".

Legean zigorren atala garatu gabe badago ere, administrazioak hainbat gauza egin ditzakeela nabarmendu du Nabaskuesek: "Esaterako, bere diru-laguntza lerroetan jaso dezake kirol taldeek formazioa egin izana egiaztatu beharko dutela". Kirol taldeek ere gauza asko egin ditzaketela ohartarazi du: "Beraien estatutuetan idatzi dezakete zer jokabide onartuko diren, edo zer pertsona mota nahi dituzten: kirol taldeek aukeratu dezakete zer langile, zer figura mota nahi dituzten beraien taldean".

Zigorren logikan kateatu baino lehen, adin txikiko haur eta gazteekin gaia lantzea izan daiteke taldeek egin dezaketen beste urrats eraginkor bat, ordura arte normalizatuta dauden indarkeria jarrerak zein diren kontziente egiteko, eta aurretantzean jokabide horiei zilegitasunik ez emateko. Nabaskues: "Ezinbestekoa da haur eta gazte kirolariei gai honen inguruan hitz egitea. Gaia azaltzea, aurkeztea zehazki zein diren onartuko ez ditugun indarkeria egoerak, eta beraien ere parte bihurtzea egoera horiek ez onartzeko. Haurrek egunerokotasunean gauza asko ikusten dituzte eta badute zeresana". Ez al da bada kirol bat ikastearen parte kiroltasunez jokatzen ikastea? ●

INDARKERIA MOTAK KIROLEAN


NORBERAK BERE BURUARI ERAGINDAKO INDARKERIA

- Bere buruaz beste egitea
- Bere buruaz beste egiteko ideiak edo saiakera
- Autolesioak
- Elikadura nahasmenduak
- Norbere buruari ezarritako gehiegizko entrenamendua

PERTSONA ARTEKO INDARKERIA


Zabarkeria

- Babes egokirik eza
- Osasun zaintzarik eza
- Ikuskaritzarik eza
- Ekipamendu egokirik eza
- Ikasketak uztera behartzea
- Segurtasunik gabeko egoeretan entrenatu eta lehiatzera behartzea



Indarkeria psikologikoa

- Umiliazioak
- Itxurari buruzko kritikak
- Pertsona alde batera uztea edo baztertzea
- Ahalegina ez txalotzea
- Mehatxuak, ahozko abusuak
- Errendimendu altuegia izatera behartzea



Indarkeria fisikoa

- Ariketak egitera behartzea, zigor modura
- Iniziazio erritu behartuak
- Elikadura osagarriak hartzea behartzea
- Entrenatze eta lehiatze behartua pertsona lesionatuta badago edo intentsitate kaltegarrian
- Eraso fisikoa




Kontakturik gabeko sexu indarkeria

- Iruzkin sexualak
- Begirada sexualak
- Irudi sexualak derrigorrez ikustea
- Irudi sexualak modu behartuan sortzea
- Irudi sexualak partekatzea
- Arropa nahitaez kenaraztea
- Exhibizionismoa aurrez aurre edo online
- Kontakturik gabeko inimiziazio erritu edo jolas sexualak



Kontaktudun sexu indarkeria

- Musu behartua
- Sexu ukitu behartua
- Genitalen kontaktu behartua
- Aho sexu behartua
- Penetrazio behartua
- Iniziazio erritu sexualak
- kontaktu behartu bidez



TESTUINGURUKO INDARKERIA (NORMATIBOA / EGITURAZKOA)

- Aurrekontua modu berezian banatzea (generoa, adina dela medio...)
- Haurrak babesteko araudirik eza (modalitate arriskutsuak, egokitu gabeak...)
- Prestakuntza eta sentsibilizazio kanpainarik eza
- Haurrak babesteko prestakuntzarik eza
- Instalazio desegokiak
- Hasiberriari burla egitearen kultura
- Adingabeen profesionalizazioa (ezkutuko kontratuak)
- Haurren lana
- Adingabeen salerosketa



“Eskolako patioa aldatzeak ekarri du neskek zentralitatea irabaztea”

Ikastetxeko kanpo espazioa aldatzeak Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleengan zein eragin izan duen aztertu du Haizea Egiartek; ikasleen arteko harreman, gatazka eta jarrerai nola eragin dien jaso du ikerketan, Asier Huegun zuzendari duela. Eta jaso du, baita ere, zein neurritan gainditu diren prozesuak izan dituen erresistentziak: patio berriak haurrak zaintzeko zailtasuna, eta futbola jolastokitik guztiz ezabatzeak hasierako nahia. “Eskolak apurto behar baditu gizartearen zenbait inertzia, zergatik ez planteatu futbola kentzea?”

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Hezkidetza eta natura ardatz hartuta, ikastetxeko kanpo espazioa eraldatu zuten Durangoko Kurutzia ikastolan. 2018an inauguratu zuten jolastoki berria, eta horren eragina ikertu du Haizea Egiartek, eskolako irakasle, guraso eta 81 ikasleren iritzia bilduta. Azken finean, “haurrek gutxienez 30 minutu igarotzen dute eskolako kanpo espazioetan egunero, 525 ordu ikasturtean zehar”, nabarmendu du.

Zergatik da garrantzitsua kanpo espazioa?

Haizea Egiarte: Irakasle moduan sarri gela barruko kontuei ematen diegu batez ere garrantzia, baina kanpo espazioa ere eskolaren parte da, ezin dugu ahaztu jolasteko leku aproposa direla kanpo espazioak eta umeei autonomia, psikomotritzitatea... jolasaren bidez ere garatzen dutela. Patiora irteten direnean, beraiek erabakitzen dute nola jolastu, zertara, irudimena erabiliz, helduek ezarritako arauetatik askeago, eta libreki eta inkontzienteki, ikasten ari dira hor ere.

Are gehiago, gela barrua eta kanpoa

continuum bat da, erabilera hezitzailea eman dakioke lau hormetatik kanpoko eremuari, eta ezin da irakaskuntza gela barrura murriztu eta patioa izatea zaintzen duzun espazioa baino ez. Klasea planteatzerako orduan kontuan har dezakegu kanpoaldea, helburu didaktikoa duen ekintzaren bat antolatu ikastetxeko patioan edo auzoan, baliabide oso aberasgarria delako, zer esanik ez inguruan natura baldin badugu.

Asier Huegun: Gela barruan ez bezala, kanpoko espazioari maiz ez diogu funtzio hezitzailea aitortzen eta kontrolik gabe geratzen da, gizartearen estereotipo eta joera asko erreproduzitzen dira, eta hain justu horregatik ere inportantea da espazio horietan arreta jartzea.

Kanpo espazio gris zurrunka ditugu oraindik, ala gero eta aberatsagoak?

Egiarte: Esango nuke irakasleak kontziente direla kanpo espazioak garrantzia duela, baina baliabide pertsonal eta ekonomikoak behar dira horiek eraldatzeko eta inportantea litzateke eskola publikoetan halako aldaketak bideratzea. Zer

egiten dute irakasleek? Daukatenarekin moldatu, proiektuak, metodologiak eta abar duten horretara egokitu, baina kontziente izanik espazioari beste erabilera batzuk eman ahal zaizkiola.

Eskolatik harago, nire herrian egin dituzten parke berriek badituzte enborrak, oreka lantzeko hainbat gailu, material ezberdinez egindako azpiegiturak... eta txikia nintzenean zabuak eta gutxi gehiago zuten. Alegia, espazio berriak diseinatzerakoan aintzat hartzen dira gauzak, baina aurrez dauzkagunak aldatzea ere garrantzitsua da, baita ikastetxeetan ere.

Huegun: Apurka-apurka ikusten dira han-hemenka espazioak eraldatzeko planteamenduak ikastetxeetan, espazioaren antolaketari garrantzia ematen eta espazioaren funtzio hezitzailea kontuan hartzen hasiak dira batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzan, baina falta da hala-koak DBHra iristea, esaterako.

Kurutzia ikastolan bai, kanpo espazioa birdiseinatzeak aukera izan dute.

Egiarte: Kezka bi arlotan zuten batez ere:



DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Asier Huegunekin telematikoki aritu gara solasean, eta Haizea Egiarterekin, aurrez aurre.

hezkidetza eta natura. Adibidez, garbi ikusten zuten patio erdian zuten futbol zelaia dena jaten zuela, nagusiki mutilek jokatzeko zuten futbolera, eta neskak patioa periferiatan mugitzen ziren. Hortik abiatuta, izugarritzeko patioa egin dute, baina halakorik ez duten ikastetxeek ez lukete kanpo espazioa patioa mugatu behar, herrira zabaldu beharko lirateke: inguruan erreka, zelaia... baldin badituzu, zergatik ez irten ikastetxetik eta aprobe-txatu? Beti ez da erraza, baina saiatzea merezi luke.

Huegun: Hala da, gaur egun eremuak eta espazioak bananduta eta zatituta ditugu, baina ikastetxeak komunitatea osatu beharko luke auzoan eta herrian, espazioek elkar eragin beharko lukete.

Hezkidetza eta natura ardatz hartuta erabaki zuten, beraz, ikastolako kanpo espazioa eraldatzea. Lau

“ ”

Adinak gehiago nahasten dira eta elkar zaintzen dute. Irakasleak konturatu dira beren zaintza funtzioa ez dela hain inportantea, behaketarako tarte interesgarria bihurtu dela jolastokia

urte iraun dituen proiektuak bi erresistentzia nagusi izan zituela aipatzen duzu ikerketan. Bata, irakasleen aldetik, beldur zirelako

espazioa zabaltzerakoan haurrak zaintzea eta kontrolatzea zailagoa izango zela.

Egiarte: Jolastokia handituta, gatazka gehiago sortu zitezkeela pentsatu zuten, eta patioaren zaintzarako errefortzua jartzea pentsatu zuten, baina konturatu ziren ezetz, espazio eta aukera gehiago emanda, haurrek jolas kooperatiboak sortzen dituztela, gaztelua edo dena delakoa elkarrekin egiten jartzen direla adibidez, eta liskarrak gutxitu egin dira. Espazio aldaketak harreman berriak sortu ditu eta futbola jaun eta jabe zen lekuan bestelako jolas eta aukerak eskaintzeak ahalbidetu du batzuk eta besteak elkarrekin aritzea. Esaterako, jolas librea bultzatzen duten espazio hauetan adinak gehiago nahasten dira, primeran moldatzen dira hainbat adinetako haurrak, handiek txikiak lagunduz, txikiak beren irudimena handiei kutsatuz... Elkar nola

zaintzen duten ikustea polita da, mendixka igotzeko bakoitzak dituen abildade eta zailtasunen arabera nola elkarri laguntzen eta itxaroten dioten. Irakasleak konturatu dira beren zaintza funtzioa ez dela hain inportantea, behaketarako tar-te interesgarria bihurtu dela jolastokia, ideiak hartzeko. Errekan gustura ari direla? Egin dezagun proiektu bat errekan inguruan.

Huegun: Zaintza ez baita soilik bertikala (irakasleak ikasleak zaintzea), elkar zaintza horizontala ere inportantea da, eta espazioaren eraldaketak elkarbizitzari on egin dion gisan, inklusioari mesede egin diola ere azpimarratuko nuke: gaitasun eta nahi askotarikoak dituzten haurrek espazio bera partekatzen dute. Aldiz, espazio tradizionaletan sarri ez da hori gertatzen eta joera baztertzailak daude, gaitasunak tarteko, besteak beste.

Bigarren erresistentzia bat ere izan zuen proiektuak: futbolik gabeko espazioaren aurka azaldu ziren batzuk, berehala. Azkenean, patioaren erdian zegoen futbol zelaia kendu bai, baina bazter batean zegoen futbito zelaia mantentzea erabaki zuen ikastolak.

Egiarte: Beharbada etorkizunean egongo da ikastetxeren bat futbol zelai bari-rik, baina momentuz ez dut bat bera ere ezagutzen. Proiektuaren hasierako ideia zen bai futbol zelaia eta bai futbito eremua kentzea, eskolaz kanpo nahi beste futbol jokatzen duelako gura duenak, beraz, zergatik ez kendu ikastetxetik? Baina erresistentzia batez ere gurasoen aldetik etorri zen. Eta niri iruditzen zait futbola guztiz kendu izan balute, haur askok hasieran protesta egingo zutela, baina gero erraz egokituko zirela eta beste jolas batzuetan gustura arituko zirela. Ikastola komunitate baten parte da, ordea, eta gurasoen eskaeraren aurrean, futbitoa mantentzea erabaki zen.

Huegun: Gizarte inertziak barruraino sartzen dira toki guztietan, eta futbola horren adibide da: “Nola utziko dugu gure semea kirol nagusian jokatu gabe?”. Benetako iraultza litzateke futbola guztiz kentzea eskolatik, baina gure iruditerian iltzatuta dugu futbol zelaia berezkoa dutela ikastetxeek, eta ez du zertan. Eskolak izan behar badu gizartearen zenbait inertzia apurtzeko lekua, halako eztabaidak eman beharko lirarteke, futbola nahikoa badagoelako jada eskolaz kanpo.

Patioa eraldatuta ere, mutilen gehiengo handiak, eta neska gutxi batzuk, futbito zelaia erabiltzen dute gehien, ikerketan diozunez. Mutila baldin bazara derrigor jokatu behar duzu futboleant, bazter ez geratzeko?

Egiarte: Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleen erantzunak jasotzen ditu ikerketak (10-11 urte inguruko ikasleentz) eta agian adin hori ere esanguratsua izan daiteke. Ez dakit pentsatzen duten futboleant aritu ezean taldetik kanpo geratzeko direla, baina egia da kanpo espazioa diseinatzetik harago beste jarduera batzuk probatu ditzaten bultzatzea ere ez dagoe-la gaizki, Asierrek dioen moduan gizarte-ko inertziak apurtu nahi baditugu. Zentzu horretan, COVID sasoian egun bakoitzean taldeka txandakatu egiten zituzten espazioak, eta mutil ugari ikusi zuen futbola ez beste jarduera batzuk egin zitzaketela, futbola ez dela aukera bakarra, eta alderantziz, neska futboleant aritzera animatu zituen egoerak, futbito zelaia egokitzen zitzaienean.

Kurutziagan egin duten beste gauza interesgarri bat da eremuak ezberdin izendatzea, eremu horiek ez dezaten erabilera jakin eta bakar bat izan. Esango nuke futbito pistari oraindik horrela deitzen diotela, baina irudikatu antzoki izendatzen dutela, ba agian hasiko lirarteke haurrak bertan antzerkia ere egiten. Espazioak ez badituzu ekinga bakarrera mugatzen, hainbat erabileratarako atea zabaltzen duzu.

Balirudike hainbat espaziok edo jarduerak generoa dutela. Generorik atxikitzen ez zaizkion horietan (landa zabalak, mendixkak, belarrezko harmailak... ditu jolastoki berrituak) ikusten da bestelako harreman eta jarrerarik?

Egiarte: Bai, aipatzen duzun berdegu- nean esaterako. Futboleant erreferente ezagunenak gizonak dira, mutilentzako kirola dela barneratu dute nolabait; enbor gainean oreka mantentzea, txirristatik jaitea edo dorreak egitea, ordea, ez dago erreferente maskulino ez femeni- noen esku, eta elkarrekin jolasten dute, aurreiritzirik gabe. 5. mailako mutilak oro har neskek baino hobeak baldin ba- dira futboleant, ikusi dute neska asko mutilak baino hobeak direla oreka jolasetan, bestelako espazio horietan. Kontua ez da ea zein den zein baino hobe eta bes- tearen gainetik geratzea, baina neskek ahalduzko eta mutilak apaltzeko mo- dua ere izan dira espazio hauek. Horrez gain, espazio ez determinatuak dira, eta aukera ematen dute hainbat gauzatan aritzeko, gaur esploratzaileak gara eta bihar txabola bat egingo dugu, ez daude beste joko batzuetan dauden arauak, eta beste harreman batzuk garatzen dira.

Huegun: Gainera, futbol zelaiak erdigu- nea hartzen zuenean zentralitatea muti- lek zuten, eta espazioa aldatzeak eta bes- te jarduera batzuk erdigunera ekartzeak eragin du hierarkia hori aldatzea, neskek zentralitatea irabaztea.



Kurutziagak utzitako argazkietan, jolastoki berria ikus daiteke. “Emakumeok badugu joera bigarren planoan egotea; haurtzarotik ikas dezatela neskek erdigunea beraiena ere badela”.



Izan ere, jolas libreari eskainitako espazioa da orain patioaren erdigunean dagoena, eta berau da neskek gehien erabiltzen duten espazioa. Hori bai, ikerketak dio irakasleek apur bat animatu behar izan dituztela neskek espazio horiek “konkistatzera”, hain dute barneratuta periferian mugitzea.

Egiarte: Neskek ez dutelako ohitura-rik erdigunea hartzeko. Zer egin dute Kurutzian? Futbola ezin dugu kendu, baina gutxienez mugitu egingo dugu, bazterrean lagako dugu, eta sokasaltoan ibili nahi dutenek ez dute zertan iskin batean aritu, margotu nahi dutenek ez dute zertan bazterrean egon, zergatik ez jarri patio erdian halakoak egiten? Ikerketaren emaitzek diote oraindik asko falta dela neska eta mutilen gehiengoak batera jolasteko, baina neskek sentitu dezatela jolastokia eurena ere badela eta jolastokiaren erdian jardun dezaketela. Gizartean, festetan... emakumeok badugu joera bigarren planoan egotekoa, protagonismoa gizonen izatekoa, txikitatik hala izan delako, baina haurtzarotik neskek ikasten badute erdigunea beraiena ere badela, zentralitatea har

“ ”

Berdegunean, neska-mutilek elkarrekin jolasten dute, aurreiritzirik gabe eta gauza ezberdinetan; beste harreman batzuk garatzen dira

dezaketela, indarra hartzen joango dira etorkizunean esateko “ni hemen nago eta lehen planoan nago”.

Naturak presentzia irabazi du kanpo espazio berrian. Eraginik izan al du horrek ikasleengan?

Egiarte: Batez ere Haur Hezkuntzako umeentzat oso aberasgarria izan da eta hareatzen edo basoan ikusten dituzu esporatzen eta jolasten. Gakoetako bat da

ikastolak ez dituela haurrak mugatzen, lupetzan edo errekan ez daitezen sartu, patioa ateratzeko katiuskak dituzte eta zikinduz gero aldatzeko arropa badute. Hainbat guraso kezatu egin ziren, umeak asko zikintzen zirela, baina zertarako egin da diseinu aldaketa, ez bada horretaz gozatzeko? Euskal Herrian zenbat euri egiten duen jakitun, euria ari duenean ere naturara ateratzea da ikastolak duen erronketako bat. Eta ikasgela barrukoa naturan egiteko aukera ere baliatu dute: belarrezko harmailtan eseri eta ipuinak kontatzea, adibidez.

Huegun: Naturak sormena pizten duela argi ikusi dute ikastolako irakasleek, haurrek baliabide gehiago erabiltzen dituztela jokoak asmatzeko, elkarlana sustatzen duela eta eragin emozionala duela. Horregatik da inportantea, lehen Haizeak aipatu duen ildotik, eskolaz harago ikasleekin inguruko berdeguneetara jotzea. Herri txikietan errazagoa dirudi, zailago bihurtzen da sortu ditugun hiri eta zenbait auzotan. Eta Euskal Herrian euri asko egiten duela-eta, Finlandian erabiltzen duten esaldi bat datorkit gogora: ez dago eguraldi txarrik, arropa desegokia baizik. ●

“ ”

“*Militantzia politikoaren zilegitasuna defendatu behar da, inolako baldintzarik gabe*”

2016ko apirilean atxilotu zituzten *Leioako 5ak*, errepresioaren aurkako ikasle protesta batean. Zazpi urteren ostean izango da epaiketa, irailaren 27an, eta 39,5 urteko espetxe-zigorak zein 45.000 euroko kalteordainak eskatuko dizkiete. Epaiaketaren atarian, haietako birekin elkartu gara Iruñean, Ander Mazkarian (Lizarra, 1995) eta Olast Arrizibitarekin (Iruñea, 1994). Euren kasuaz, ikasle mugimenduaz eta errepresio politikoaz mintzatu gara.

 MIKEL EIZAGIRRE  ZOE MARTIKORENA

Nola oroitzen dituzue unibertsitateko militantziako lehen urteak? Zeintzuk ziren ikasle mugimenduaren orduko dinamikak?

Olast Arrizibita: Beste garai bat zen. Ikasle Abertzaleak Bolonia prozesuaren aurkako borroketatik zetorren, gorakada handia izan zutenak. Gure garaian, berriz, beheranzko bidean zegoen ikasle mugimendua. Egiten ziren dinamikak ez zuten zentzu estrategiko argia, gehiago ziren egunerokoari erantzuteko dinamikak. Horrelako dinamiketan egin genuen lan.

Ander Mazkarian: Hori bai, manifestazioaren testuinguruan eztabaida estrategikoagoak abiatu ziren, ikasle mugimendua nahiko hazi zen eta hazkunde horrek perspektiba zein jende berria ekarri zituen. Azpimarragarriak dira *EU 2015*en aurkako mobilizazioak, nahiko indartsuak izan zirenak. Gero, zentzu

eraikitzaileagoan, Herri Unibertsitateak une horietan hasi ziren indarra hartzen.

Eta 2016ko apirilaren 26 hura? Zer gertatu zen Leioako campusean?

A. Mazkarian: Mobilizazio bat egin genuen, berez aurretik hasi zena, EHUK ikasle mugimenduaren aurkako auzi errepresibo ugari zituelako. Orduan, hainbat astetako dinamika egin zen EHUko errektoretzarekin bildu eta konponbidea bilatzeko asmoz. Data jarri zen errektoretzak hori onar zezan, baina etengabe uko egin zionez, manifestazioa egitea erabaki genuen azkenean, negoziazio-mahai hori behingoz onartu eta konponbidea emateko helburuarekin. Mobilizazio horretan unibertsitateko segurtasun agenteak ikasleen aurka oldartu ziren eta errektoretzak Ertzaintzari unibertsitate-ra sartzeko eskatu zion. Ikasleak jipoitu

zituzten, hamabost zauritu izan ziren eta bertan atxiki gintuzten Leioako bostak.

Zehazki, zer ari zineten salatzen atxilotu zintuzteten manifestazio hartan?

O. Arrizibita: Bost aldarri genituen: San Mamesko Herri Unibertsitatean espedientatuak izan ziren bost ikasleei espediente diziplinariarik ez irekitzea; Gas-teizko ikasleen aurkako zigorrak kentzea; Leioako campuseko beste ikasle baten aurkako salaketa zein espedientea kentzea; Ertzaintza EHUra ez sartzeko behin betiko neurriak hartzea; eta segurtasun agenteak campus guztietatik ateratzea.

Nola gertatu ziren atxilotetak? Zein izan zen Ertzaintzaren jokabidea?

A. Mazkarian: Mobilizazioan geunden, eta inork espero gabe Ertzaintza sartu

zen bat-batean, modu oldarkorren. Borekin jendea jipoitu zuten eta manifestarien artean bost hartu gintuzten, nahiko modu arbitrarioan. Modu arbitrarioan diogu, baina ez zuten EHUKo irakasle *akomodatu* bat atxilotu. Azken finean, han geundenak militanteak ginen, borroka egiten ari ginen, manifestazio batean geunden, manifestazioak izaera politiko jakin bat zuen, eta hori errepremitu zuten.

Manifestazioan zegoen edonori gerta zekiokoen.

O. Arrizibita: Bai, bai. Militante asko geunden, eta denok genuen hor egoteko zein militantzia aktiboa izateko sentimendu bat, pentsaera bat. Horietako edozein izan zitekeen.

A. Mazkianan: Gu bostoi egokitu zitzaigun, baina beste edozein militante izan zitekeen. Beraz, guztiz arbitrarioa ere zen izan, perfil konkretu bat zen jazarri zutena.

Egoera ez zen baretu zuek atxilotu ondoren. Hurrengo urteetan atxiloteta gehiago izan ziren, hainbat aldiz ikusi dugu Polizia, Gasteiz, Leioa zein Ibaetako campusetara sartzen, atzetik jarraitzeak eta kolaborazio eskaerak ere izan dira...

A. Mazkianan: EHU Ertzaintza egotea

“ ”

“Mobilizazioan geunden, eta inork espero gabe, Ertzaintza sartu zen bat-batean, borrekin jendea jipoitzen hasi zuten eta manifestarien artean bost hartu gintuzten, nahiko modu arbitrarioan”

Ander Mazkianan

irudi naturalizatu edo normalizatua bilakatu dela dirudi. Duela hamarkada batzuk, langile mugimendua indartsu zegoenean, elizak eta unibertsitateak askatasun esparrutzat jotzen ziren bilerak egiteko eta gauzak antolatzeke, Polizia ezin zelako bertan sartu. Baina geroz eta gehiago ari da normalizatzen Polizia gizarteko esparru askotan, baita unibertsitatean bertan ere, besterik gabe sartzea. Ohiko bihurtzen ari da Ertzain-

tza hor ikustea, ikasleak identifikatzen aritzea, jarraitzeak eta hori dena. EHUKanpora begira saltzen duen izaera demokratikoaren maskara erori egiten da horrela, eta bere benetako izaera agerian uzten du.

Nola bizi dira zazpi urte horrelako epaiketa baten zain?

A. Mazkianan: (Buf) Urte gehienak ziurgabetasunez. Urte asko pasa dira eta ia-ia guri ere ahaztu zitzaigun. Iaz zitazioa eta zigor-eskakizun guztiak iritsi arte, hor zegoen, tarteka gogoratzen ginen, baina nahiko ahaztuta zegoen. Orain, epaiketa gertu dugula, zigor-eskaerak altuak direla jakinda... urduriago eta kezkatuago gaude. Hala ere, urte asko pasa arren, Leioako boston artean harreman ona izaten jarraitzen dugu eta horrek laguntzen du kasua hobeto eramaten. Nik ere, pertsonalki, lagunartean zein inguruan militante konprometituak ditut eta hori lagungarria da bakarrik ez sentitzeko.

Zein zigor eskatzen dute EHUK eta segurtasun enpresak? Zein fiskaltzak?

O. Arrizibita: Segurtasun agenteei dago-kionez, 39 urte eta erdiko espetxe-zigorrrak eskatzen dituzte guztira: birentzat hamazazpina urte, bina beste biren aurka eta azkenengoari urte eta erdi. Fiskaltza-

Olast Arrizibita ezkerrean eta Ander Mazkianan eskuinean.





rena apur bat apalagoa da: bederatzi urte eta erdiko bi zigor, bina urte beste biren aurka eta azkenengoari urte eta erdi. Zigor ekonomikoan ez dago alde handirik fiskaltzaren eta segurtasun agenteen artean, biek 45.000 euro inguru eskatzen dituzte. Hori bai, kopuru horri EHUK eskatzen duena gehituko litzaioke, baina oraindik ez dakigu zenbat den.

A. Mazkiaran: EHUK “kalte materialengatik” erantzukizuna eskatzen du zuzenean, zenbatekoa oraindik esan ez badu ere. Badirudi “gutxien eskatzen duena” dela, baina erantzukizun handiena duena da berez. Azken batean, berak kontratatatu zuen segurtasun enpresa, berak eman zien ertzainei sartzeko agindua eta bera da testuinguru hura modu errepresiboan sortu zuena. Orduan, nahiz eta kalte materialak bakarrik egotzi, EHUREn erantzukizun zuzena ikusten dugu; salatu beharrekoa.

Zigor-eskaera handiok estrategia baten barruan daudela esan duzue. Zertan datza?

O. Arrizibita: Batetik, ikasleriari eta, orohar, mugitzen den militante orori jakinaraztea estatuari aurre egiteak zigor ekonomikoa zein espetxe-zigorra dakarrela. Gure askatasun politikoak txikitzeko estrategia da, muga jakin batzuetatik pasatzen bazara errepresioa jasango duzula gogorarazteko.

A. Mazkiaran: Eta bestetik, juridikoki egiten duten jokoa da zigor-eskaerak izugarri puztea, beste kasu askotan egiten duten bezala. Batez ere xantaia gisa

“ ”

“Ikasleriak antolatzen jarraitzen du, ekintzak eta manifestazioak egiten, dinamika ugari planteatzen estatuari gustatzen ez zaizkion terminoetan”

Olast Arrizibita

funtzionatzen du, gero “xumeagoak” edo “tartekoak” diruditen zigorrak onar ditazun. Jendea ere lasaiago geratzen da, “hainbestera izan ez dela” edo “zigor proportzionala” dela pentsatuta.

Zuek, ordea, argi diozue “zigor proportzionalik” ere ez zenuketela onartuko: zentimo bakar bat ere ez isunetan, egun bat bera ere ez espetxean.

O. Arrizibita: Bai, prozesu judizialari berari zilegitasuna ematen ariko ginatekeelako. Basakeria da eskatzen digutena, baina prozesu judiziala bera hala delako. Gainera, egia da ez genuela aparteko ezer egin eta gure bizitza kolokan dagoela.

A. Mazkiaran: Zigorrak txikiagoak ba-

lira ere, izaera politikoa ikusten diogu epaiketa honi. Edozein zigor, handia zein txikia izan, ez dugu onartzen. Militantzia politikoaren zilegitasuna defendatu behar dela uste dugu, inolako baldintzarik gabe. “Militatu dezakezu, baina manifestazio batean bazterrak nahasten badituzu bi urteko zigorra egokia da, baina lau urte ez”, batzuk agian sartzen dira zenbakien joko horretan. Baina guk uste dugu sistema juridiko guztia dagoela errepresiora bideratua eta edozein zigor bidegabetzat joko dugu.

Mobilizazioekin hasi zarete dagoeneko, eta gehiago izango dira epaiketa egunera bitartean.

A. Mazkiaran: Mobilizatzea garrantzitsua dela uste dugu. Batetik, epaiketara begira indar zein iritziz sozial zabala dagoela erakusteko, epaiketa injustuzat jotzen duena. Eta bestetik, gure kasutik haratago, orokorrean, edozein errepresio kasuri begira garrantzitsua iruditzen zaigu saretzen joatea, elkartasuna antolatzen joatea eta edozein kolperen aurrean modu kolektiboan erantzutea. Orduan, gure auzia isolatu eta gure kontua baino ez dela ulertu beharrean, *errepresio politikoa gelditu* lemarekin biltzen dugu, gure kasua zein beste batzuk salatzeke mobilizazioak izan daitezken.

Zigor-eskaerak eta prozesu judizialok “beldurra eragiteko helburu politikoa” dutela salatu duzue; egun ikasle mugimenduan militantzen dutenen aurka zuzenduta, zehazki. Efektu hori lortu dute? Nola ikusten duzue egungo ikasle mugimendua?

O. Arrizibita: Nik uste dut ezetz, ez dutela lortu. Ikasleriak antolatzen jarraitzen du, ekintzak zein manifestazioak egiten, dinamika ugari planteatzen estatuari gustatzen ez zaizkion terminoetan. Iparrorratz bat, gogo bat ikusten da bide horretan jarraitzeko. Ez dute lortu, eta esango nuke oraingoz ez daudela lortzetik gertu ere.

Akusatuen aulkian eserarazi zaituztenek ikasle belaunaldi berriei zabaldu nahi dieten mezua beldurrarena bada, zein mezu bidali nahiko zeniekete zuek?

A. Mazkiaran: Borrokaren mezua bidali nahiko genieke. Egia da errepresioa hor dagoela eta hortaz hitz egin behar dela. Errealitateari aurpegira begiratu behar diogu eta kontziente izan behar



gara arriskua existitzen dela. Hala ere, uste dut horrek ezin gaituela eraman inobilismora, geldirik geratzera. Ez militatzeak edo estatuaren parean mugimendu politiko indartsua ez egoteak egoera askoz okerragoan uzten gaitu. Krisi testuinguru batean gaude eta pobreziarantz goaz, belaunaldi-faktore nahiko garrantzitsuekin. Orduan, ikasleek eta gazteek bereziki pentsatu behar dute borrokarako bidea hartzea, gaur egun ditugun eskubide horiek borrokarakin lortu direlako eta borroka delako bide bakarra horiek lortzeko. Edo bestela, sumisioan geratzea eta ez antolatzea dago, estatuari eta oligarkiari euren bidean aurrera egiten uztea; pobrezia, planetaren sunsipenera eta miseriazko beste mila egoeratarako kondena gaitzaten.

Badira urte batzuk unibertitate ikasketak burutu dituzuela. Zein da askatasun politikoen egoera orokorra?

O. Arrizibita: Batetik, loraldi berria dago askatasun politikoen erabileran, geroz eta mugimendu errotuagoak daudelako, ideia politiko argiekin. Garai interesgarriak bizi ditugulakoan nago.

A. Mazkianan: Eta gero, askatasun politikoen ezabapenari dagokionez, unibertitate mailan egoerak larria izaten jarraitzen du. Gertuen dugun kasua da Gasteizen pikete batzuegatik atxilotuak izan ziren 34 ikasleena, espedienteak irekitzeko eta auzipetuak izateko arriskuan daudenak. Baina hori dena unibertsiteaz haratago doan testuinguru zabal batean kokatu behar dugu: estatuak hartzen ari diren joera autoritarioan. Esate baterako, duela gutxi zenbait mugimendu ekologista "terroristatzat" jo dituzte, Polizien infiltrazioak mugimendu sozialetan, ongietorriak egitegatik Espainiako Auzitegi Nazionalak hainbat lagun inputatu izana, egunerokoan militantzian jasaten ditugun isun zein askatasun politikoen urraketak, faxismoaren gorakada ere aipatzekoa da... Aurre egin behar diogu, mugimendu indartsua sortu behar da errepresioaren auzian ere lan egingo duena, arazo horiei guztiei modu kolektiboan aurre egiteko. Zentzu horretan, politikoki edo estrategikoki amnistia osoaren kon-

tzeptua gaurkotatzen handikoa da, eta ez bakarrik preso politikoen auziarekin, errepresioari modu integralean erantzuten dion kontzeptu gisa baizik. ●



ASTEKARIA



Txantxikuari buruzko artikuluak emango dio hasiera "A ze fauna!" atalari.
ARGAZKIAK: IÑAKI MEZQUITA ETA IÑAKI SANZ-AZKUE

Ezagutzen ez ditugun bizilagunak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Egin dezagun ariketa bat, irakurle. Hartu minutu bat eta pentsa ditzagun hamabost animalia. Pasa da minutua. Ea, zenbat dira Euskal Herrikoak eta zenbat urrutiko ekosistemetakoak? Buru askotan egongo dira lehoia, elefantea, jirafa, tigrea, tximinoa... Inguruan bizi ditugun lagunen ezezagutzaren sintoma argia. Bai, ziur txakurra, katua, oiloa, astoa, eta abar zuetako askori otu zaizkiola, baina animalia askoz inguratuta gaude eta hor daudenik ere ez dakigu sarri. Ornodun zein ornogabe, Euskal Herriko animaliak ezagutzeko txoko berria izango dugu datorren astetik aurrera aldizkari honetako Bizi Baratzea atalaren barruan: *A ze fauna!*

Astero, "espezie konkretu bati buruzko informazioa emango da modu irakurterrazean, baina zorroztasun zientifikoa galdu gabe eta animalia hobeto ezagutzeko bitxikeriak txertatuz", azaldu digu

Iñaki Sanz-Azkue Aranzadi Zientzia Elkarteko biologoak. Berak anfibio eta narrastiei buruz idatziko du. Elkarte bereko beste egile kualifikatu hauek osatuko dute saila: Iñaki Mezquita (lehorreko ornogabeez), Nagore Zaldúa (itsasoko ornogabeez), Eneko Batxiller (itsasoko arrainez), Nerea Pagaldai (hegaztiez) eta Egoitz Alkorta (ugaztunez).

ARRUNTENAK GUTXIEN EZAGUTZEN DITUGUNAK

"ARGIA**n** biodibertsitatearen gaian interesa zutela-eta heldu zitzaigun atal berri hau sortzeko proposamena. Gure ingurua ezagutzera emateko asmoarekin, guk animalia arruntenetan zentratu nahi izan dugu. *Arrunt* hitzarekin nahastu egiten baikara. Halako gutxiespen bat bezala ematen diegu, baina kuriosoa da, gero ez baititugu bertako espezie arruntenak ezagutzen", Sanz-Azkueren hitzak.

Gizartean naturarekiko dagoen eza-

gutza gutxitu egin da eta horri tiraka, dibulgazioan eta hezkuntzan jarri beharreko indarrean ezartzen du fokua biologoak. "Ez soilik umeengan zentratuta; helduek beraiek jaso behar dute informazioa, eta haiek izan daitezke etxean, lagunartean edota beste edozein testuingurutan informazio hori transmitituko dutenak", zehaztu du. Baina egungo egoera zein den argi jakiteko ikerketaren garrantziaz ere hitz egin digu eta baita horretara bideratutako inbertsio handiagoaren beharraz ere.

Nazioarteko ikertzaileak behin eta berriz ari zaizkigu esaten klima larrialdia bezain garrantzitsua dela biodibertsitatearen galera. Gizaki ekodependenteak garen aldetik, ezinbestekoa da ulertzea inguratzen gaituen horren beharra dugula bizitzeko eta, helburu horrekin dator atal berri hau. Ezagutzen ez dena ezin baita maitatu eta estimatzen ez dena ezin zaindu... ●

AGENDA

ÑO!

KOMIKI LIBURUA HEMEN DA

Liburuaren aurkezpena eta erakusketaren irekiera ekitaldia egileekin:

🕒 **Irailaren 28an** 18:00etan

📍 **Hernanin** Kulturarteko Plaza Feministan

Liburuaren aurkezpena:

🕒 **Urriaren 5an** 19:00etan

📍 **Iruñean** LABAn



UDAZKENEKO BEDERATZIURRENAK



GARBIÑE LARREA

Gaurko artikulua ezin dut sendabelar batean oinarritu, orain arte bezala. Izan ere, udazkenean sendabelar bat baino gehiago ezkondu eta norberarentzako egokia den formulazioa sortu behar genuke. Udaberri zein udazkenean bederatziruarenak egitea oso aspaldiko ohitura da gure artean, aldaketa asko dakarten urtaroak direlako, akaso. Horri gehitu zaio gure egungo bizimoduak udazkenean aldaketa askotara egokitzea eskatzen digula.

Formula unibertsalekin lan egitea eroso da, erosoegia, baina ez da inola ere bakoitzaren beharretara egokitzea, eta hemen era bateko edo besteko bederatziruena egin, norberaren egoerak aginduko du. Hautatutako sendabelarrek edozein direla ere, bederatziru egunean jarraian hartuko ditugu, ez gehiago, eta egunean behin bakarrik, goizean baraurik; hori bai, urrian hasi eta hiru hilabetetan jarraian egin behar litzateke.

Negua etorri aurretik gorputzean atxikitako gehiegizko likidoak kanporatzea eta maskuri zein giltzurrunak indartzea oso komenigarria da hotzari aurre hobeto egiteko eta negua hasi aurretik gorputza arintzeko. Zeregin honetan azeri buztana (*Equisetum arvense*), txilarra (*Calluna vulgaris*) eta arto bizarrak (*Zea mays*) erabili izan dira. Asuna (*Urtica dioica*) ere ipin dakioke, baina kontuan izan behar da askok ezingo duela bederatziru egunean jarraian hartu.

Sendabelar horiek lehortu eta kopuru berean nahasten dira, hermetikoa den ontzi ilun batean jasoz. 250 mililitro ur irakin eta sendabelar lehortuen bi koirarakada txiki ipintzen dira, bost minutu

tapatuta eduki, iragazi eta goizean baraurik edaten dute. Atzetik ohi bezala gosalduta daiteke.

Udazkenean nekea edo astenia izan ohi baditugu, berriz, azeri buztana (*Equisetum arvense*), asuna (*Urtica dioica*), erromeroa (*Rosmarinus officinalis*), zaingorria (*Geranium robertianum*), ezkaia (*Thymus vulgaris*) eta erramua (*Laurus nobilis*) har ditzakegu, horiek ere lehortuta eta kopuru berean nahastuta.

Infusioa hartzea nekeza egiten zaiorenentzat bada barazki salda hartzeko aukera. Salda ez dugu infusio bezala irakurtzen, baina oso gertuko senidea da. Tipula, porrua (hosto berde eta guzti), baratxuria, jengibre freskoa, apio edo perrexila, azenarioa eta aza zein errefautxoak lapikoan ipini eta egosi bat eman ondoren sua itzaliko dugu. Ondoren, asuna eta azeri buztana ipiniko ditugu, litroko koirarakada handi bana. Hamar minutuan estalita eduki eta iragazi egingo dugu. Eguneroko 300 mililitro edatea

litzateke ona, hutsik edo arrautza egosia zein fideoak bezalako lagungarriekin.

Infusio hauetan azeri buztana eta asuna daudelarik azazkalak eta ilea indartuko zaizkigu eta hori ondo etorriko zaigu, udazkena ile erorketa garaia izan ohi baita. Gehiegizko izerdia duena konturatu da lagundu egiten diola izerdi hori bere onera ekartzen.

Ezin amaitu oharra egin gabe: hipertentsioarentzat, bihotzerako edo giltzurrunetarako botikak hartzen baditugu, sendabelar hauek erabili aurretik medikuari galdetu behar zaio. Ezin ditugu epe luzean erabili, bederatziru eguneko epea nahikoa da. Haurdunaldi zein edoskitzaroan ere ez erabili, ez baita gorputza garbitzeko garaia. Haurrentzat ere ez da egokia. Odolean potasio gutxi badugu ez da erabili behar. Tentsio baxua dagonean ere tamainan hartu behar da, bederatziru egunez ezin bada, zazpi egunean, adibidez. Kontuan izan urdaileko gaitzak baditugu infusio hauek bihotzerrea sordezaketela. ●



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA



JAKOBA ERREKONDO / CC-BY-SA

Sagastia bete sagar.

EZURTEA ETA BAIURTEA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Aurten baiurtea da. Gure etxean. Bedaioko lagunen etxean, berriez, ezurtea. Sagarrondoak (*Malus domestica*) da baietxean ala ezetxean. Egoskortu egiten da: "Bai!", "Ez!"... eta hobe du. Hil ala bizikoa du eta bizimodua sortzen du. Bizilege du.

Urtebiak dira sagarrondoak. Ez denak, batez ere alea berandu heltzen dutenak, irailetik atzera, alegia. Eta maiatzaren amaieran, beranduenera ekainaren hasieran erabakitzen dute hurrengo urtean sagarra emango duten edo ez. Sasoi horretan lorea ernaldu da eta polinizazio egokia izan dutenak sagar koxkor aleak hazten hasi dira. Alearen barruko haziak ere bidean dira eta haien osatzeko hormona jakin batzuk sortu behar ditu sagarrondoak. Arbolak gainean zenbat ale dituen, hormona gehiago edo gutxiago ekoitzi beharko du. Hortxe dago gakoa.

Hormona ugari behar badu, ale asko dakarren seinale. Hormona gutxirekin moldatzen bada, ale bakan batzuk besterik ez dakartzan igargarri. Sagar asko badu, sagar horiek ekartzeko udazkene-ra bitarteko ahalegina ikaragarria izango da; dituenak eta ez dituenak beharko ditu sortutako hainbeste ale eta hazi onbideratzen. Sasoiak sortutako energia eta erreserbetan metatutakoak ederki xahutuko ditu. Udazkenea ahituta iritsiko da eta negua lepogainean; ez du tartetik izango arnasa pittin bat hartzeko ere. Horren jakinaren gainean, maiatzekainetan hurrengo urtean baiurtea edo ezurtea izango den erabakia hartzen dute. Aurtengo erabakia hartua dute: gurean sagarrondoak mukuru direnez hurrengo urtean ez dute emango. Bedaioko lagunen sagastian bai, sagarrondoak ale gutxi batzuekin besterik ez daude, emango dutela erabaki dute.



"Ilargia eta landareak" 2024ko agendaren aurkezpen berezia:

Orioko Kultur Etxean,
irailaren 28an, 18:30ean.

Jakoba Errekondoren
kontsultategia, **Antton Olariaga**ren iruditegia...

eta piztiei buruzko bertso zaharrak, **Unai eta Eñaut Agirrek** kantatuak.

Sagarretik bizi den jendearentzat ez da atarramentu ederra hori. Inausketarekin, maiatzaren amaiera baino lehenago aleak bakantzearekin eta abar saiatzen dira sagarrondoaren erabakitze ahalmena zapuzten, baina ez da erraza.

Sagarrondo guztiak ez dira berdin egoskortzen, ez dute behar. Goiz sagarrak, sanjoan sagarrak eta amabirjin sagarrak, adibidez, uztailean helduta dute alea eta hiru edo lau hilabete izango dituzte oneratu eta suspertzeko. Urtero emango dute.

Batetik, erabakitzeko gaitasuna dago. Guk ez bezala, badakite hurrengo maiatzean zer egingo duten. Eta bestea da hartzen dituzten erabakiak bete egingo dituztela.

Gure ezgaitasuna ageriago azaltzeko hor dago galdera: non eta nola jasotzen dute erabaki hori urtebetez? ●

GAZTAINONDOA BUELTAN DA NAFARROAN



GARAZI ZABALETA

Urte luzeetan oinarrizko elikagaia izan zen gurean gaztaina, eta gaztainondoaren zura oso erabilia eraikuntzan, altzarietan eta bestelakoetan. 1960ko hamarkadatik aurrera, ordea, gaztainondoaren galera nabarmena hasi zen Euskal Herriko eta Nafarroako basoetan: “Tinta eta minbizia eritasun larriek, gizartearen industrializazioak eta mendietan pinua sartzeak gaztainondoaren galera ekarri zuten”, azaldu du Mikel Diaz Osés Nafarroako Gobernuako Mendi saileko teknikariak. Urteak daramatza Osesek, kide gehiagorekin batera, Nafarroan gaztainondoak berreskuratzeko eta bultzatzeko lanean.

GALIZIA EREDU

Zuraren ekoizpenean hemen baino askoz aurreratuago daude Galizian, Asturiasen eta inguruko beste zenbait tokitan: “Eritasunei irtenbidea eman nahian, Galiziako CIF Lourizan ikerketa zentroak bertako gaztainaren eta gaztaina japoniarraren arteko hibrido bilduma bat sortu zuen 1980ko hamarkadan, eta bilduma osoa jasotzen zuen entsegu partzela bat landatu zuten Baztanen 1984an”, dio teknikariak. Horietatik, tintari erresistente diren sei klon-hibrido aukeratu eta Nafarroako zaz-



pi partzelatan jarri dira azken hiru urteotan: Arantzan, Baztanen, Beran, Iturenen, Leitzan, Lesakan eta Luzaiden.

Baina, zergatik hibridazioa? Bada, bertako gaztainak ez direlako eritasunekiko erresistenteak eta japoniarrak bai, baina, aldi berean, japoniarrak ez duelako zurerako balio, eta bertakoek bai. “Landaketa esperimentalak izan dira, hibrido horiekin hemen zura ekoizten ahal den testatzeko, eta emaitza onak jasotzekotan, aurrera begira, partikularrei nahiz udalei zein klon mota landatu ditzaketen gomendatzeko erabiliko dira datuok”. Pinuaren gaitzak sortutako galera dela-eta, gaztainondoari eta beste espezie batzuei beste aukera bat ematen saiatzen ari dira, nolabait.

BERTAKO BARIETATEAK BERRESKURATZEN

Nafarroan ez bezala, Galizian eta Bierzon, esaterako, fruituaren ekoizpenak ere ez du etenik izan, eta horregatik, bertako barietateen identifikazioa eta kontserbazioa garatuago dituzte. Klonei bertako barietateak txertatzen dizkiete, fruituak ekoizteko. Nafarroan, orain gutxi arte, bertako barietateak ez zeuden ia ikertuak, eta Basoaingoa herriz herri elkarrizketak egiten aritu da bide horretan. “Gaztainondoak mendietan lokalizatu

eta analisi genetikoak egin dira. Behin-behineko emaitzen arabera, Nafarroako hamasei bat barietate jaso ditugu”, adierazi du Osesek. Gaztainondoaren berreskurapen proiektuaren bigarren hanka dute hori: “Hemendik aurrerako lana horiek deskribatzea, erregistratzea eta merkaturatzeko balio ote duten aztertzea izanen da”.

Zenbait herrik interes berezia agertu dute bertako barietateen berreskuratzean, eta Udalen eta INTIAren bidez ikastaro arrakastatsuak antolatzen ari dira azken hiru urteotan, Asturiastik, Bierzotik eta Galiziatik, esperientzia duten eskualdeetatik, datozen teknikarien laguntzarekin. ●



HEMEN DAGO
NAFARROA

Zigilu honen atzean, zapora on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA

'BIZKARSORO' PELIKULA

Herri baten trauma kontatzeko pelikula

Bizkarsoro herria ez dago inongo mapatan, baina erraz asko identifika daiteke. Koka genezake Ipar Euskal Herrian, barnealdean eta baserri giroan, XX. mendean. Herri euskalduna da, jendearen joan-etorriak eta populazioaren nahaste handirik apenas bizitu duena iraganean. Lehen Mundu Gerran frantsesen bandoan borrokatu beharko du lehenik, eta nazien inbasioa jasan gero. Finean, identitateari eta hizkuntzari uko egitera behartuta ikusiko du bere burua. Programaturik dago bere heriotza, arriskuan dago, eta ondo pentsaturik egingo zaio eraso, baina pronostiko guztien kontrara, eutsi egingo dio. Eta hiltzekotan ere, badaki, autopsiarako frogak utzita hilko dela.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

Bernardo Bertolucciren *Novecento* filma ikusia duenak *simil* gisakoa sentituko du Josu Martinezen *Bizkarsoro*-rekin, nahiz film italiar handiak fikziotik gehiago duen *Bizkaroso*-k baino. Errealitateetik asko edan duen filma da Baigorri urteak daramatzan zinegile bilbotarrak goxo eta pazientziaz ondu duena. Fikzioa dela defentsa sutua egin du: "Harkaitz Canok esaten du: 'Fikzioaren eta errealtatearen arteko diferentzia bakarra da fikzioak koherentea izan behar duela'. Fikziozko herri bat asmatu dugu, nahiz oro har Baigorri eta baigorriarrekin grabatu. Askatasuna ematen digu Bizkarsoro herriak. Hala ere, istorio guztiak istorio

dokumentatuak dira, ez dugu ezer asmatu. Testu idatzietatik edo ahozko lekukotzetatik bildu ditugun istorioak dira, hemengoak eta beste eskualdetakoak".

XX. mendeko euskaldungoaren historia kontatzen du *Bizkarsoro* filmak. Irailaren 27an estreinatuko dute Donostiako Zinemaldian, *Zinemira* sailean, Antzoki Zaharrean. Hurrengo egunetan ere proiektatuko dute.

Duela bost urte abiatu zuten *Bizkarsoro* proiektua, izen ugari hartu ditu bidean, eta dagoeneko iritsi da amaierara. Emeki-emeki, urtero, pelikularen zati bat egin eta bereizirik eskaini dute han eta hemen –baten batek, agian, kontrabandoan-edo ikusiko zuen zati bat

edo beste, EHZ festibalean esaterako-. Lehen zatia grabatzen, duela bost urte, egun eta erdi pasatu zuten; azken zatia, iaz grabatu zutena, bost egunetan egin zuten.

Bost zati ditu filmak, Bizkarsoro herriak bizitu dituen bost garai ezberdintzeko: 1914tik 1982rako tartean, Lehen eta Bigarren Mundu Gerraren testuinguruak, aurrekariak eta ondorengoak; bateko euskararen eta euskal kulturaren susperraldi eta besteko jazarpenak; debeku, seinalatze eta iraintzeak. Horiek denak bistaratuko dira pelikulan, makina bat istorio, eta horiek gorpuzteko aktore lanetan aritu dira 200 herritar baino gehiago –"bukaerako kredituetan,

Filmean agertzen diren aktore batzuk, zuzendariarekin batera, pelikula amaitzen den lekuan, Baigorriko plazan.





Hainbat fotograma eta grabazio uneko irudi.





badaezpada, hiru puntu jarri ditugu”-, eta azpimarratzekoa, antzerkian eta zinemaren esperientziarik gabeak direla aktore gehien-gehienak.

“Gogoan dut neure burua herritarrei begira, herriko jaietan, ‘hau izan daiteke pertsonaia hura’ eta horrelakoak pentsatzen”, dio Martinez zuzendariak. Hainbeste herritar film baterako mobilizatu izanak aberastu egin du Baigorri hain errotuta dagoen auzolanerako kultura, hala uste dute pelikularen parte-hartzaileek, Nafarroaren Egunean bistaratu ohi den gisako zerbait sortu dutela pelikularen lanarekin. Eta guztiak auzolaneari ez ezik, herriak pelikulako profesionalei egin dien “harrera ona” ere azpimarratu dute: kanpotik ekarri dituzte teknikariak, herriko jendearen etxeetan hartu dute ostatu, eta filmaren bueltan zebiltzan herritar-lagunek makina bat otordu prestatu dituzte lantalde guztiarentzat. “Goxo joan da prozesua”, azpimarratu dute.

Horrez gain, jendea ez-profesionala izanda, zinemaren, antzerkiaren eta artearen ikuspuntutik urrats garrantzitsua eman dute jendea formatzerako orduan; horixe da Aña Errotabehereren kasua: “Artean jendea behar zela esan zidaten lehen laburra grabatzeko unean. Gustatu zitzaidan ainitz, eta ezagutza egin nuen, eta asko ikasi dut Izaskun

**“Fikziozko herri bat
asmatu dugu, baina istorio
guztiak dokumentatuak
dira, lekukotza errealak”**

**“Euskaraz delako, ‘euskal
zinema’ esaten diogu,
baina kamera atzean
erdaraz aritzen dira asko”**

Urkijo alboan izanda”. Arte ikasketak egindakoa da Errotabehera, baina sekula modu horretan praktikan jarri gabea.

Esanguratsua da Lea Campistronen kasua ere. Pertsonaia zentral gisa hauteman daiteke berak antzeztzen duena –bost garai dira, elkarlotuak baina denboran bereziak; beraz, pisua daukaten pertsonaiak asko dira-. Martinezek “intuizioz” eman zion ardura, eta ustekabean jakin zuen gerora Campistronen “konexio berezia” zuela pertsoniarekin.

Izan ere, Campistroni ez datorkio etxetik euskararekiko ezagutza –ezta berak antzeztzen duen pertsonaiari ere-, eta sorterritik kanpo ari zen antzerki ikasketak egiten, Okzitaniako Tolosan, oraintsu arte. “Nire lehen filma da, euskaraz gainera; hauteman diot zentzu bat, balioa, iraultza ttipi bat da. Deliberatu dut berriaz euskara ikasteko ideia eta hemen lan egin nahi dudala. Artea da jendeari mezua luzatzeko bidea”.

Martinezek ere modu oso berezian oroitzen du Campistronen papera, honela esan dio berari, mahaiaren bueltan geundela: “Filma egin eta hilabete bartzuetara bidali zenidan mezu bat esanez uda euskaltegian pasatzeko asmoa zenuela, eta Euskal Herriari berriaz lotzeko gogoia ere bai. Horregatik bakarrik mezezi du pelikula egitea”.

Eta horrela, apurka-apurka, auzolaneari eraike dute pelikula. Baigorri grabatu dute oro har, baita Arrosan zein inguruko auzoetan ere. Erabat euskaraz sortu dute pelikula, nahiz badituen Frantziako zein Alemaniako inbaditzaileen mintzaira erdaldunak, baina sortu, euskaraz sortu da osoki. Hau da, kamera atzean, aurrean, gidoietan eta leku denetan euskara sumatu da. “Euskaraz den pelikulari ‘euskal zinema’ esaten diogu, kamera aurrean euskara entzuten delako, baina gero, askotan, kameraren atzean



Josu Martinez, zuzendaria.



Lea Campistrone, aktorea.

denak erdaraz ari dira. Badago *Ikuska* bat, trantsizio garaiko dokumental horietako bat, Antton Ezeizak eta Koldo Izagirrek eginikoa, euskararen normalizazioaz-edo; 1980an, euskara zertan zegoen irratian, prentsan eta ez dakit non gehiago. Zintaren amaieran agertzen zen karretera batean *Bai Euskarari* zioen pintada bat, eta orduan esaten zuen Izagirrek: 'Eta zineman, nola dago euskara?'. Atzetik entzuten zen kameralaria: *'Enfoca bien, que se vea bien el Bai Euskarari'* (enfokatu, ondo ikus dadila pintada)".

ARBASOEN BIZIPENAK ANTZEZTU

Berezia izan da eszena jakin baten grabaketa. Frantsesez da -gasteleraz ere izan zitekeen-, haurrak ikasgelan daude, eta jakina, guztiek dakite euskaraz. Irakaslea erdalduna da, hiriburutik etorria, eta, nahitaez, berak esaten duelako, inposizioz, erdaraz behar dute mintzo. Euskaraz egiten duena zigortua eta seinalatua izango da, lepoko bat jantziko du egun osoan, eta ikaskide bat atzematen badu euskaraz hitz egiten, salatu egingo du.

"Eszena hori grabatzea *shock* galanta izan da Baigorriko ikastolako haurrentzat". Haiengan gogoeta mardulak sortu

"Pertsonaiaren eta aktorearen artean oso dialektika indartsuak sortu dira"

ziren, luzaroan izan zen etxeetako hizketagai nagusia, "imajinaezina" zitzaielako halako egoerarik guztiek euskaraz zekiten ikasgelan. "Une horretan beraien aiton-amonak gorpuzten ari ziren, baina beste haur batzuk, gero, filmaren azken atalean, euretako batzuen gurasoak antzezten aritu ziren, ikastolaren sorrera irudikatzen". Ospakizun unea, Polizia etorri arte. Haurrek horixe bera galdeztzen zuten: zergatik etortzen da Polizia?

Azken eszena horretan, gurasoekiko gertutasuna sentitzeaz harago, hausnarketarako geratu ziren hainbat gako gehiago, izan ere, testuinguruak testuinguru, batzuen gurasoek iraindu egiten

zituzten ikastolan ikasten zuten beste gurasoak. Zer pentsa eman die horrek haurrei, baita helduei ere. "Dialektika hori pertsonaiaren eta aktorearen artean oso indartsua izan da esparru guztietan".

Familia askoren iraganak bat egiten du hainbat puntutan. Kasu askotan gertatu dena da aiton-amonak euskaldun peto-petoak izan eta euskara maitatzea -agian erdara ikastera heldu gabe-, baina erabaki zutela haien haurrei frantsesa soilik irakastea, "sozialki gora" egingo zuten ustearekin. Eta areago, generoarekin ere badu lotura: neskei frantsesa eta mutileri euskara irakasten zieten hainbat gurasok. Aipaturiko egoerak pelikulan erakusten dira.

EUSKARA, POLITIKA EGITEA?

Arrosako plazako ostatuan egin dugu hitzordua. Urte asko eman ditu itxita, eta itxura berriturik zabaldu berri du Errotabehere familiak; pelikularen parajea izan da tabernaren eraikina. Leku enblematikoa da, eta bai fikzioan eta bai errealitatean bere balioak mantendu ditu; detailea dirudien arren, aipatu behar da: euskaraz dago karta, eta paretetako afixetako hitzak ere euskaraz dira. Ez da guztien gustukoa, ordea:



Aña Errotabehere, arte taldekoa.



Manex Fuchs, aktorea.

Errotabeheren ostatura herritar batzuk ez dira joaten "ongiotorriak ez direlakoan". Larzabaleko herrian ostatua hartu duen bikote gazte bati ere antzerako zerbait gertatu zaiola aipatu dute, eta puntu hauxe ipini dio Martinezek aferari: "Horrek erakusten du borroka ez dela amaitu. Jendeak uste du euskaraz egitea politika egitea dela".

"Uste dut gaur egun bizi ditugula diskriminazioaren hainbat aurpegi", esan du Manex Fuchs aktoreak -profesionala den bakanetakoa da filmean-. "Maskara aldatzen da, jartzen ditugu aurpegi demokratikoagoak, baina berez, pelikulan kontaktzen den zapalkuntza hori hor dago; aldatzen dena aurpegia da. Batzuetan aktiboagoa da eta besteetan pasiboagoa da jazarpena". Lausotu direla moldeak, alegia.

KONTZIENTZIARIK BADA?

Euskararen historiaren, jazarpen historikoaren eta erresistentziaren transmisiorako balioko du filmak, baina argi diote elkarrizketatuek transmisioa ez dela helburua, "baizik eta ondorioa". Dena den, XX. mendean euskara zapaldua zela "kontzientzia handiagoa" zegoela uste dute, Hegoaldean, argiki, Francoren diktadurarengatik. "Hemen, Iparraldean,

"Euskararen historia zapalkuntza istorioa da; jakin egin behar dugu transmititzen"

euskararen alde egotea zen zapalkuntzaren kontra egotea". Ezagutzari eta transmisioari dagokionean, "eten" bati buruz hitz egin dute.

"Gutxitan esaten da, historia hau, funtsean, trauma bat dela", azpimarratu du Fuchsek. Trauma historiko bat, herri batek bizi duen trauma. "Trauma pertsonalak ikertzen dira, medikuak hor dira, baina trauma kolektiboak aski zailak dira ikertzen". Pelikulara itzuli eta erreferentzia hauek egin ditu: ageri den lehen belaunaldia, Lehen Mundu Gerran haurra zena, euskaraz soilik zekiena eta euskara ukatu zaiona, trauma bizi izan duena da; eta hurrengo belaunaldian "zatiketa" etorri ohi da, parte batek ukatzen jarraitu duelako euskaldun izatea

eta beste batzuek erresistentzia egin dutelako. Bada hirugarren belaunaldi bat ere, ondorengoa, euskara galdu duena eta "lotsa" sentitzen duena horregatik, trauma bizi duena. Edo euskaraz badaki, baina "ez beharbada hain ongi", eta akatsak egiteko beldur da, lotsati. Eta horixe da pelikulan kontaktzen dena, Fuchsen esanetan: "Herri honek bizi duen trauma horretatik nola izaten segitzen ahal dugun".

Memoria ariketa egiteko funtzioa bete nahi du *Bizkaroso* pelikulak, aditzera ematen baita XX. mendeko hainbat unetan etenda egon dela memoria eta transmisioa. Agerikoa da pelikulan, esaterako, belaunaldi batek euskara berpizteko grina izan eta haien gurasoek hori apaldu nahi izateko asmoa adierazten dutenean, haiek baitziren lehenago borrokatu zutenak. Seme-alabek ez dute arrastorik beren gurasoek euskaraz dakitenik ere.

"Euskararen historia zapalkuntza istorio bat da, eta hori jakin behar da transmititzen", Martinez zuzendariaren arabera. "Beharbada, horretan asmatuko bagenu, eta fikzioak horretan lagundu badezake primeran, agian jende gehiagok ulertuko du zergatik merezi duen euskaldun izatea". ●



LIBURUA

Ezinbesteko desira ez-errentagarriak



BRITANNICA

MASKARA BATEN AITORTZA

YUKIO MISHIMA

ITZULPENA: IKER ALVAREZ

IGELA, 2023

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Kochan protagonistaren desira ho-
moerotikoaren kontzientzia har-
tzea eta espermentazioa kontatzen
zaigu *Maskara baten aitortza*-n. Bigarren
Mundu Gerrako azken urteetako dizipli-
napean kontzientzia hartze hori posible
egingo dion normaltasunaren maskara
sortu, eta hor arituko da irakurlea mas-
kararen alde batetik bestera. Igela argi-
taletxeak ekainean euskarari ekarri zion
eleberri hau Yukio Mishima gerra-osteko
idazle japoniarraren bigarrena izan zen.

Bada, maskararen atzeko desirara fil-
tro gabeko sarbidea ematen dio irakur-
leari eta hori iruditu zait zirrargarriena.
Usainak eta frakak; gazteak eta helduak;
emakume biluzien argazkiekin saiatzeara
baina soldadu eta santuenekin berotzea;

musuak eta sexu grinak; obsesioak eta
lotsak; haragiaren nahi etengabea eta
minaren erotika. Desiraren zirkulazioa-
ren kartografia literario erotiko zehatza
egiten du eleberriak.

Euskal munduaren neurrira egindako
eskandalu partikularrak jarraitu zion
Igelari eleberria argitaratu eta gutxira
eta ezin aipatu gabe utzi. Ereinek, Ige-
laren jabeak, erabaki zuen editorearen
kontratua bertan behera uztea. Gaizki-
ulertuak bitarteko Ereinek argitu zuen:
“Aurreneko kasua izango litzateke mun-
duan kaleratutako langile batek eraba-
kitzen duena enpresaren jarduna noiz
gelditzen den”. Arazoaren muina, hala
ere, beste bat zen: ez ziren ezarritako
errentagarritasun helburuak bete.

Irakurtzean, pentsatu nuen ezetz, ez
zela lehenengo kasua izango munduan
langileek, are kaleratutako langileek ere,
enpresa bat gelditzen dutela. Pentsatu
nuen: nork geldituko du lantokia ez bada
langileak; nola imajinatu editoriala ez
dela geldituko editorearen lanik gabe.

Noski, lan indarra abstraktua izanik
beti da ordezkagarria. Kendu langile bat
eta jarri beste bat errentagarritasunaren
miraria egiteko. Alta, arazoa da lan indar
hori konkretua ere badela. Mishimaren
itzulpen hau da emaitza konkretu horie-
tako bat. Arduratzekoa da diglosia gorri-
ko Euskal Herri honetan Mishimarena
bezalako itzulpenak direla ekonomikoki
ez-errentagarriak bezainbat kulturalki
guztiz funtsezkoak. ●



MUSIKA

Musikak eramaten gaituenerat



JON IRAUNDEGI

IKER BARANDIARAN

Post-rocka, post-punka, post-hardcorea... Iraganetik datozen aterkiak dira. Inork gutxi daki zehazki zer estaltzen duten eta zer ez, nor busti eta nor ateri den. Eta, paradokixoki, nire semeetako batek, 7-8 urtetako inozentziakin (edo agian musika latinoa entzun aurretik... ji-ji) modu oso grafikoan deskribatu zuen: "Punka edo hardcorea dramarekin". Arrazoa! *Post* aurrizkia jartzen dizkiogun talde ia guztiek daukate drama, malenkonioa poso edo urgentziatik harago zama ilun bat, bereizi, interesgarriago eta askotan misterioitsu bilakatzen dituen.

Bestalde, sortzeak badauka oinarri drama edo barruko mina. Eta tesitura horretan gorde edo atera, honat edo harat

egiterakoan, garrantzitsua da bigarrenaren alde egitea bizilege. Horixe bera egin du Ibai Gogortzak, dozenaka musika proiektutan burubelarri ibilitakoa den eta dabilen beratarrak (Joseba Irazoki Eta Lagunak, Mice, Joseba B Lenoir, Sateletik...), oraingoa bere kantu propioak idatzi ostean plazaratzeko jarraitu duen taupadan. Hitzak eta musika idazteaz gain, gitarra eta ahotsaren ardura hartu du (biena batera lehenengoz) Gogortzak, dotoreziaz, Iñigo Telletxea baxuan eta Mattin Arbelaitz baterian lagun dituela.

Borrokan taldeko kide ere badira Gogortza eta Telletxea; hau da, musikan eta bizitzako proiektuetan orpoz orpo aritutakoak; eta Arbelaitz entsegu lokaleko bizilaguna. Hara, ezinbestekoa da kanta-

ren batean Borrokan-en arrastoa izatea, baina harago doa bederatzi abestitan batutako emaitza: hirukotea fina da testuratan, giroan, intentsitatean eta bere baitan ñabardura oso irekiak batzen dituzten piezak eraikitzen. Badira une langidoak, indartsuak, erritmo jostariak, *riff* malenkonikoak, intentsitate sarkorak, industrial pisutsua, une kiribilduak, poesia baita Xabi Erkiziak landutako jantzi berezia ere, besteak beste.

Antza, buelta askorik eman nahi izan gabe, Iñigo Irazokirekin grabatuak izan diren zirriborroak dira hauek, freskotatunari eutsi nahi eta horiek harrapatuta utzi nahi zituenak. Hortaz, post-ari baino momentukoari erreparatu beharko diogu arretaz! ●



HARAT

HARAT

AUTOEKOIZPENA, 2022



Euriak ez zuen gelditu baina

CHILL MAFIA

NON-NOIZ: Mendillorriko Txosnagunean (Iruñea), irailaren 9an

✂ IÑIGO SATRUSTEGI 📷 CHILL MAFIA RECORDS

Hasieratik esanen dut ez zela izan espero nuen kontzertua, edo ez nuela aurkitu espero nuen giroa behinik behin. Hilabeteak ziren Chill Mafiak kontzerturik ematen ez zuela eta gogoia egon bazegoen. Arratsalde osoan zehar bi mamu aritu ziren Mendillorriko txosnagunearen inguruan: 1) Euriak etenik emango al du? (Eta 2), batez ere, Kiliki azalduko ote da? Azkenerako, jendetza bildu zen pista gorriaren inguruan larunbat gauean. Dena aldeko zuten: etxean (auzoan), Iruñerri osotik etorritako fansak eta atertzera eman zuen zerua. Baina ez dakit zertan ez zuten asmatu, edo zergatik ez ninduen ohi bezala engantxatu.

Eszenatokira euritakoa eskuan igo ziren (Kiliki ere bai), eta Sarak ere ekipoa estaltzeko bazuen txiringittoa muntatuta. Jota tuneatu batekin hasi ziren, ez nuen ezagutzen, eta entzun ere, gehiegi ez zen

entzuten. Gero etorri ziren Ben Yart eta bere *outfit* beti performatiboa kantura, eta taldearen kanta ez hain ezagunak. Ordura arte esanen nuke espektatibak goian genituela oraindik kontzertuak goia noiz joko.

Lagun batek dio ez dela talde bate-re txosneroa. Azkenean ekipo on bat behar dela eta horrek zapuzten duela dena. Beste batek esan zidan Ben Yarten kantak ez dakizkien pertsonari astuna egin dakiokoela kontzertua, eta nahiago duela Ben Yartek kontzertua bakarka ematen duenean. Hirugarren bati ere eskatu nion iritzia, eta zalea izanik ere, esan zidan besterik gabe kontzertu txarra izan zela.

Egia esan, azkenerako karparen azpitik kanpoaldera atera ginen ez genuelako tokiarekin asmatu (ez ordea, karparen postean igota dena eman zuen gatzetxoak). Horrek ere baldintzatzen

du nola bizi duzun kontzertu bat. Kanta ezagunenak (*Barkhatu, ay que emoción, 31014, Mañaneo, Gazte arruntaren koplak...*) amaierarako utzi zituzten eta irudipena, kanpotik behintzat, ez zen estasi kolektiboarena. Are, *jaleikoa* eskatzen zuten goitik behin eta berriz, seinaleren bat ere ematen zuen horrek.

Zer ziren eta zertan bilakatu diren galdetu zidaten. Tira, ba ez dut esango agortu den fenomeno denik. Ikusi besterik ez dago zenbat jende (oso ezberdin) batzeko gai diren. Talde guztiek bezala *bolo* onak eta txarrak dituzte. Kontzertu bat, gainera, faktore askoren emaitza ere bada eta larunbatean, niretzat, dena aldeko zuten arren, kontrako eragileen kate bat izan zen. Euriak ez zuen Chill Mafia gelditu, baina ze pena. Neguan Zentralen eman zuten kontzertu kasik epikoaren oroitzapena gorde beharko dut hurrengora arte. ●



Hitz gezidunak

ORO, GUZTIA ETORKIZUN	BOXEKO BORROKALDI MUSIKA ESTILO	...-ZART, KOLPEAREN ONOMATO- PEIA	DA, NIRI JUSTU, NEURRIZ	OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEA ZETA	ZIKIN, LOHI AZTERKETA	AGUR BUKAERA	
		BULEGOKO MAHAI INFUSIO BIZIGARRI					
PARTIKULA AZPIATOMIKO IMAN HARRIA				PERTSO- NAIAREN IZENA AREA			
					NAFARROAKO HERRIA GALDE PARTIKULA		
UKATU ADITZAREN INFINITIBOA	GADOLINIOA MUSIKA TRESNA					HERRI HIZKERAN, BADA GAMBIAKO HERRITAR	
		GIZONEZKO IZENA				ANFIBIO MOTA USO AR	
BIZKAIKO IBAIA LAUGARREN MUSIKA NOTA							NAFARROAKO UDALERRIA
	BITAMINA BAT PERTSO- NAIAREN ABIZENA					BURDINA ERAKARTZEN DUEN HARRI ILE	
PRESIO UNITATE ARROPAK ZURITU		DAGO INFORMAZIO UNITATE	ADI, ERNE LISTUA	AZKEN BOKALA	BOROA AURRIZKI EKOLOGISTA	OXIGENOA NAHASTE	
				BIZKAIKO UDALERRIA PLUTONIOA			
SENTENTZIA PRENTSAN ZAPALDU			MURGILARI SUFREA				
					ERLOJU, ORDULARI		

Sudoku

BETE ITZAZU GELAXKAK 1 ETIK 9 RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

2			8		4		9	
8	9	3						7
4	5			3		2	8	
6			3	9			7	8
		8	4		5	9		
	2	4	7				3	
	8	2				7	5	
				1				2
	7			2	8	3		4

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Kopuru txiki zehaztugabe.
- Gogo biziak.
- Irmo, sendo.
- Igel, Gipuzkoan.
- Uzkurra, zapaldua.

EBAZPENAK

4	1	3	8	2	2	6	9	7	5
3	4	9	5	1	7	8	6	7	1
2	1	8	2	6	4	3	7	5	9
6	2	4	7	7	8	1	6	3	5
7	3	8	4	6	5	9	2	1	4
6	1	5	3	9	2	4	7	8	
4	5	7	1	3	9	2	8	6	
8	9	3	2	6	1	4	7		
2	6	1	8	7	4	5	9	3	

N	E	O	R	U	J	V	S	J	N	E	R	E	P
I	R	E	K	A	R	E	P	U	I	V	A	E	P
I	V	A	R	I	E	I	O	B	A	X	I	I	I
O	B	U	Z	D	R	A	R	B	A	R	B	A	R
N	A	I	M	A				D		A	F		
	A	R	S	U						A	E	L	E
	L	I	G	E						A	K	A	U
A	B	A	V	L	A			G	D				
S	V	A	R	V	J	I	J	E	N	G	V	A	M
O	K	E	N	E	I	O	J	U	E	N			
I	V	H	V	Z	V	D	I	O	R	O	G	E	R
D	U	O	Z	Z	R								

Itxaso Paya Ruiz

SORTZAILEA



(AB)IZENA BAINO, IZANA

“Paya Ruiztarra da gure familia, berez, eta horri esker jaso dugu plazandre, eszena, sorkuntza eta horrelako kontzeptuekiko ezagutza. Gure aita, Alfredo Ignacio Payá Santamaría, itsasgizona izan zen; denbora gehiago ematen zuen itsasoan etxean baino. Itsasontzian kristoren kontzertuak ematen zituen eta etxean ere bai. Gure amak, Carmen Ruiz Bracerasek, antzerki ikasketak egin zituen, eta Espainiako Estatuko sari garrantzitsu bat irabazi zuen aktore lanetan. Itsasgizona eta plazandrea, bikote magiko baten emaitza gara Fredi, Xabier eta hirurok. Abizenaren markak bidea errazten du kasu batzuetan eta besteetan zaildu. Paya Ruiztarra izateak ematen dizkidan gauza on guztiei Itxasotik gehitzen ahalegindu ohi naiz”.

“Euskal emakume sortzaileen 'macdonalizazioa' agerian uzten duen satira musikala izango da *eMCumeak*”

Itxaso Paya Ruiz (Algorta, 1988) sortzaile askotarikoa da. Pokemonek bezala, bizitza du jolas eta eboluzio. Antzerkia, bertsolaritza eta telebista jorratu ditu azken urteetan. “Publiko aurrean etxean sentitzen naiz” dio, baina plazan “hazi” arren, ez du ezkututzen tarteka txiki sentitu dela. Kultur eragile eta sortzaile dabil egun, Zelako Kultur Ideiak Kooperatiba sortuta. *eMCumeak* ikuskizunari azken astindua ematen harrapatu dugu.

 IZAR MENDIGUREN COSGAYA  PELLO MAUDO

Bertsolari, aktore... edo biak? Zein putzuk busti, indartu edo ito zaitu tarteka gehiago?

Biek, batzuetan bertsolari eta besteetan aktore; putzutik putzura saltoka goazen ero batzuk gara, zuk ere badakizu horren inguruan zerbait, ezta Izar? Bertsolaritza eta antzerkia oso gertukoak dira: inprobisaketak, entzuketa kolektiboa, neurtutako hitzak, doinu eta erregistro aukeraketak, elkarlana, bakarkako lanketa, memoria, gorputza oholtza gainean jartzea, hartzailearen beharra... Bertsolaritzarekin harreman handiagoa izan dudanez gero, horri dagokion putzua da gehien busti, indartu, eta proportzio berean, ito nauena. Hala ere, plaza maite dut, eta sarri nagia edo beldurra sentitzen badut ere, publiko aurrean etxean sentitzen naiz; bertsotan, aktore lanetan, dantzan, zein kantuan.

Kultur sortzaile edo eragile? Zein uretan dabil egun Itxaso?

Kultur sortzaile aritu naiz betidanik eta gerora ohartu naiz eragile ere izaten ari nintzela, sorkuntzaren bidez. Korrontearen eta marearen arabera, ur batean edo bestean aritzen naiz, itsaso bereko kontuak dira horiek denak eta. Kultur sortzaile, esaterako, azken aldian gidoigintzan, antzerkian eta musikan aritu naiz, batez ere. Eragile gisa, aldi berean, Zelako Kultur Ideiak Kooperatiba Elkarte Txikia sortu genuen iaz, eta kultura, elkarlana, berdintasuna eta euskara sustatzen dituzten proiektuak gauzatzen ditugu. Oso momentu gozoan nago, oso sortzailean eta gozagarrian. Anarik kantatzen du “behingo erabaki duzu zauden lekuan geratzea”. Ba ni abestiaren zati horretan nago: nahi dudan lekuan, nahi dudan jendearekin eta nahi dudan baloreetatik.



"Aspaldi ohartu nintzen amestu ohi nituen plaza desiratuak ez zirela errealitatean existitzen eta eraikitzen hasi beharra zegoela".

Askotariko plazandrea zaitugu. Plazak hazi ala txikitu egiten du?

Ez dizut gezurrik esango: plazan handi sentitzen naiz. Are gehiago, plazan hazi egiten naizela aitortu izan didate ingurukoek askotan, eta nik ere bai, aitortzen dut. Badaukat gaitasuna, pasioa eta ezagutza. Hala ere, tarteka, hamaika oztopo azaltzen dira bidean. Txiki senti ninteke tarteka, baina nire joera nagusia plazan haztea da.

Nor da Maurizia! ikuskizuna taularatu zenuten iaz. Maurizia Aldeiturriagak errekonozimendu sozialaz gain, kultur aitortza falta zuen, akaso?

Ezin da errekonozitu ezagutzen ez dena. Nor izan zen Maurizia? Pokemon bat baltz, beharbada, umeek ezagutuko lukete, baina zoritxarrez, 14 urteko edozein euskal gazteri galdetuz gero ez du jakingo Maurizia nor izan zen. Azken aldian, egia da Maurizia Aldeiturriagaren irudia eta izena indar handia hartzen ari direla, ez izana, ordea. *Nor da Maurizia?* ikuskizuna taularatzean nor izan zen azaltzen dugu, eta zergatik den gure kulturaren parte. Kultur sortzaile eta eragile gisa ezinbesteko funtzioa du transmisioak; jakin behar dugu zein izan diren gure erreferenteak, gero erabakitzeke zer bide hartu.

eMcumeak lana plazaratuko duzu aurki Maria Rivero abeslariarekin batera.

Zelakoren lehen produkzio serioa izango da *eMcumeak* ikuskizuna, euskal emakume sortzaileen *macdonalizaciona* agerian uzten duen satira musikala. Olatz Beobidek zuzenduko du, gainera. Dudarik gabe, *eMcumeak* ikuskizunaz gozatzeraz datorren jendea gogoeta eta barre eginda aterako da. Azaroaren 26an izango da estreinaldia Getxoko Muxikebarri antzokian, agendan fosforitox markatzeko moduko data!

Goazen telesaileko aktore ere izan zinen aspaldi. Antzerkitik bizitzea, errealitatea baino fantasia da? Zerk zailtzen edo errazten du bidea?

Fantasia hutsa, zoritxarrez. Nire ustez, Euskal Herrian ez dago inor aktore izatetik bizi dena; beti ere, beste lan batzuekin uztartuko ditu aktore lanak (irakaskuntza, ostalaritza, produkzioa...). Eta hizkuntza gutxitua duen herri bateko aktorea zarenean eta hizkuntza gutxitu horretan egiten duzunean lan, izugarri areagotzen da zailtasuna. *Goazen* telesailean parte hartzea esperientzia zoragarria izan zen eta oso gustura errepikatuko nuke uda bat Basakabin. Zorteduna izan naiz eta an-

tzerki ikasketak amaitu nituenetik beti izan dut antzerki proiekturen bat esku artean.

Fokupean edo proiektuak argitzen, non sentitzen zara gusturen? Zergatik?

Fokupean, argi eta garbi. Aurreko batean aktore bati zera entzun nion: ametsak ez dira betetzen, ametsak lantzen dira. Zenbat denbora eman ote nuen nik plaza baten zain? Ez dakit, hala ere, gehiegi, seguru. Aspaldi ohartu nintzen amestu ohi nituen plaza desiratuak ez zirela existitzen eta eraikitzen hasi beharra zegoela. Horregatik, tarteka fokupetik ateratzen naiz eta itsasargia beste nonbaitera bideratzen dut, proiektuei argia emanez eta ingurura begiratuz.

Sorginetik ez dakit, sortzeko grinetik asko duzu. Zein da beti amestu eta osatzeke duzun proiektua?

Bakarra? Ozeano eta erdi daukat proiektu platonikoz beteta. Musikal bat protagonizatu, film bat zuzendu, disko bat grabatu, telesail bat ekoiztu, frantsesa eta galegoa ikasi, euskal parke tematiko bat martxan jarri, itsasontziko lizentzia atera... Zerrenda amaigabea da. Une honetan *eMcumeak* ikuskizuna da osatuko dudana amestutako azken proiektua, sorginkeria ote? ●

Meme bat Waterloo

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

raila izaten da urtearentzat, astelehena astearentzat den gauza berbera: zulo tenporal tragiko bat, nola edo hala gainditzen duguna, parean tokatzen den edozein zantzu positibori atzaparrekin, letaginekin eta bihotzarekin eutsiz. Ostareren bat ikusi behar horretan, Nanni Morettiren film berriari buruzko albisteak irakurtzen hasi naiz –Zinemaldia baino lehen komentatzen dut hemen, gero existitzen ez diren pelikulei buruz ere denetik esango baitu prentsak–.

Antza denez, *Il sol dell'avvenire* morettikada totala da, alegia, ideologiko-gorritzat eta narratiboki autofiktiboa, eta badu eszena bat, trailerrean ikusitakoa irudikatzen dudana bezalakoa baldin bada, garaia ondo samar harrapatuko duena: bildu da filmeko protagonista –pelikula bat bukatzeko diru faltan dabilen zinema zuzendaria–, Netflixeko exekutibo agresiboekin eta hauek paketea markatuz esan diote 190 herrialdetan estreinatuko dutela; baina gero komentatu diote filmak arazo larri bat daukala: *what the fuck* momentu bat falta zaio.

Hum. Hor badago zerbait. Eta zer den jakiteko, galdetu behar da zergatik eskatzen dion ikus-entzunezko kapitalismoaren abangoardiak zuzendari bati eszena bat, ikuslea jarriko duena “baina ze ostia?!” esateko tenorean. Erantzun posible bat, diot nire artean, izan daiteke ondorengoa: absurduak, satelitekeriak, *what the fuck*-ak arreta erakartzen du, memeak produzitzen ditu; beraz, potentzialki birala da, filmaren –edo dena delakoaren– irismena handitzen du. Zure telefonoko pantailan agertzeko denon kontra borrokatzen ari garen mundu gerra honetan, *what the fuck* eszena daukanak badu tanke bat.



Horrelako kontuak nerabiltzan buruan, Carles Puigdemontek eta Andoni Ortuzarrek Waterloo egin duten bileraren argazkia ikusi nuenean. Dena ulertu nuela iruditu zitzaidan. Aber, dena. Zerbait. Konkrétuki, zer pintatzen duen definizio altuko telebistan pintxatu duten ikurrina.jpg horrek. Bandera horretaz nahi duzuna esango duzu, baina gauza bat argi dago: ez da trapu bat.

Deskuiduaren hipotesia: convergente ohiek okasiorako ikurrinik eduki ez, jeltzaleek beraien eramatea ahaztu; eta nolabait jarri behar euzko endaren izara obengea, fundamentuzko bilera bilateral batek bi nazioen ordezkari nagusien arteko topaketa sinbolizatuko badu –nahiz eta azkeneko hauteskundeen emaitzek beste zerbait adierazten duten, baina tira, nork behar ditu botoak imajinarioak erabil ditzakeenean–. Posibleena da hori gertatu izana, ados.

Jolas dezagun, hala ere, *what the fuck* eszenaren hipotesiarekin, ez baitira pare bat gauza ahaztu behar: orrazkeran antzik ez duten arren, Ortuzar eta Puigdemont komunikazioaren mundutik datoze, baretik; eta kide diren tradizio politikoek jakin dutela 1978tik Espainiako Estatuarekin probetxuzko txamak egiten, bestetik. Horregatik, ez dit lan handirik ematen pentsatzeak ikus-entzunezko komunikazioaren azkenaldiko tendentziak estatupaktu berrien zerbitzura jartzen dituen irudi baten aurrean gaudela, Sanchezen inbestidura baino zerbait gehiago bulztatu nahi lukeen operazioan: meme bat Puigdemonten “konpromiso historikoa” eta Urkulluren “konbentzio konstituzionala” publiko zabalari helarazteko.

Hitz egin dezala mundu guztiak HD-n proiektatutako ikurrinaz: antza denez azkenaldian ez dago estrabagantzia baino jarrera hoberik gaiak agendan sartzeko. ●

2024

Ilargia eta landareak

URTEKO LANEN AGENDA

Orion
aurkezpena

Bi hankako
piztientzat

Egileak:

Jakoba Errekondo eta
Antton Olariaga

Laguntzaileak:

Unai Agirre eta
Eñaut Agirre

bertso zaharrak kantatzen

* Galderen txandan,
publikotik landareen
kontsulta egiteko aukera.

Noiz:

Irailaren 28an

18:30ean

Non:

Kultur Etxean

Antolatzailea:



ARGIA

BIZI BARATZEA

Irailak 23, Nekazaritza Ekologikoaren Eguna!

ekolurra.eus



Ekologikoa, dena hobetzeko!

Babesleak:



Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua
Consejo de Agricultura y
Alimentación Ecológica
de Euskadi